

Ahalera sintetikoa egon, joan eta ibili aditz sintetikoetan Leitzako euskaran

El potencial sintético de los verbos sintéticos *estar*, *ir* y *andar* en el euskera de Leitza

Le potentiel synthétique des verbes synthétiques *être*, *aller* et *marcher* en basque de Leitza

The synthetic potential of the synthetic verbs *to be*, *to go* and *to walk* in the Basque of Leitza

OIARTZUN SAGASTIBELTZA, Fernando
Ikertzaile beregaina
elixaldekoborda@gmail.com
ORCID: <https://orcid.org/0009-0008-0363-8620>
DOI: <https://doi.org/10.59866/eia.v2026i71.333>

Jasotze-data: 2025/09/01
Behin-behineko onartze-data: 2026/02/06
Behin betiko onartze-data: 2026/03/05

Egon, *joan* eta *ibili* aditz sintetikoen ahalera sintetikoak bizirik dirau oraindano Leitza. Adin handiko jendearen testigantzei esker, ahalera sintetikoaren bilduma osoa egitea lortu dugu aldaera guztietan: izan ahalera orainaldian, iraganaldian eta alegiazkoan; izan aditz-erregistro neutroan; izan hikako erregistro alokutiboan, alegia, igorleak solaskideari hi esanda eta hi horri dagokion marka adizkian txertatuta.

Gako-hitzak: aditz sintetikoak, ahalerazko aditzak, ahalera sintetikoa, Leitzako euskara, alokutiboa, hitanoa.

El modo potencial sintético de los verbos sintéticos *estar*, *ir* y *andar* sigue vivo en Leitza. Gracias a los testimonios de gente de edad avanzada, hemos conseguido hacer una recopilación completa de los verbos sintéticos potenciales en todas sus variantes: el potencial

presente, pasado e hipotético; las formas verbales del registro neutro y las del tuteo alocutivo (hitano), es decir, cuando el emisor se dirige al receptor como *tú* y eso se refleja en la forma verbal mediante la marca correspondiente.

Palabras clave: verbos sintéticos, verbos potenciales, potencial sintético, euskera de Leitza, alocutivo, hitano.

La forme potentielle synthétique des verbes synthétiques *être, aller* et *marcher* est toujours active à Leitza. Grâce aux témoignages de personnes âgées, nous avons pu réaliser une compilation compréhensive des verbes potentiels synthétiques dans toutes leurs variantes: le présent, le passé et le potentiel hypothétique, soit en formes verbales au registre neutre, soit en formes allocutives, à utiliser lorsque l'on choisit le tutoiement (*hi*) qui inscrit dans le verbe une marque du genre de l'allocutaire.

Mots-clés: verbes synthétiques, verbes potentiels, potentiel synthétique, discours Leitza, conjugaison allocutive, hitano.

The synthetic potential form of the synthetic verbs *to be, to go, and to walk* is still alive in the town of Leitza. Thanks to the testimonies of older people, we have managed to carry out a full compilation of the synthetic potential verbs in all their variants: the present, past, and hypothetical potential; the verbal forms in a neutral register, as well as the allocutive, to be used when we choose the «you» treatment (*hi*) that inflects the verb according to the gender of the conversation's partner.

Keywords: synthetic verbs, potential verbs, synthetic potential, Leitza speech, allocutive agreement, Hitano.

OIARTZUN SAGASTIBELTZA, Fernando (2026) «The synthetic potential of the synthetic verbs *to be, to go and to walk* in the Basque of Leitza», *Euskera Ikerketa Aldizkaria* 71 (1): 215-276.

1. Sarrera
2. Ahalerari buruzko azalpen orokorrak
 - 2.1 Ahalera adizki analitikoetan
 - 2.2 *-t(z)en + ahal* egitura
 - 2.3 Ahalera adizki sintetikoetan
 - 2.4 *ba-* aurrizkia adizki sintetikoetan
3. Euskararen erregistroak eta alokutiboaren erabilera
 - 3.1 Tratamendu alokutiboa
 - 3.2 Hiztunen gaitasuna erregistro informalean
 - 3.3 Erabilera sintaktikoa adizki alokutiboetan
4. Leitzako usadioa *egon, joan* eta *ibili* aditzen ahalera sortzerakoan: adizki analitikoekin nahiz sintetikoekin
5. Hizkuntzalariek eta adituek ahalera sintetikoaren gainean egindako lanak
 - 5.1 Ekarpena Iñaki Gamindek sintetikoaren ahaleraren gainean egindako lanei
6. Aditz taulen aurkezpenaz bi kontu argigarri
7. Leitzako euskararen maizenik gertatzen diren aldaketa fonetikoak
8. Ahalera sintetikoaren taulak
 - 8.1 EGON aditza
 - 8.2 JOAN aditza
 - 8.3 IBILI aditza

Bibliografia

Eranskinak:

1. eranskina. EGON aditzaren ahalera sintetikoa erabiliz ahoz jasotako adibideak
2. eranskina. JOAN aditzaren ahalera sintetikoa erabiliz ahoz jasotako adibideak
3. eranskina. IBILI aditzaren ahalera sintetikoa erabiliz ahoz jasotako adibideak

1. Sarrera

Artikulu honetan *egon*, *joan* eta *ibili* aditz sintetikoen ahalera sintetikoa Leitzako mintzoan jorratuko dugu haren aldaera guzietan: orainaldian, iraganaldian eta alegiazkoan. Adizki horiek guziak aztertu ditugu aditz-erregistro neutroan, baita hikako molde alokutiboan ere.

Ahalerazko adizki sintetiko horien izatea herrian bertan jaso genuen ahoz haur eta gazte denboran, garai hartan horrelako formaren bat entzuten baitzen maiz samar. Ondoren, Iñaki Gamindek Nafarroako ahaleraz-eta idatzi zuen artikuluari esker (Gaminde 1984), gehiago ikasi genuen horien gainean, eta gure euskalkiaren erabilera berezi horren balioaz jabetu. Gerrogo, Leitzako hizkerari buruzko egundainoko lanik mardulena argitaratu zen (Olano 1998), zeinetan gaineratik izanagatik ere aipatzen baitzen aditz sintetiko horien erabilera gurean. Baina, Olanoren arabera, galbide azkarrean omen ziren ordurako ahalerazko sintetikoak, eta Gamindek bilduari ez zion ekarpen esanguratsurik egin; ez zuen sakondu bilketan eta aztergaia bere hartan utzi zuen. Azkenik, 2020. urtean Leitzako hitanoaren gaineko *Hika eta Toka. Noka ere toka!* liburuaren lanketan hasiz geroztik, ahoz entzun egiten genituen ahalerazko adizki sintetikoak grabaketetan, eta Leitzako adizki horien gaineko lanketa osoa egiteko aukera izan dugu, baserrietako adin handiko jendeak ba baitarabiltza oraindik ere ahalerazko adizki sintetiko horiek.

Hala bada, ahal izatea adierazteko Leitzako ahozko mintzoan bizirik den erabilera hori ekarri nahi izan dugu hona, gramatikalariek eta hizkuntzalariak itzalitzat jotzen duten erabilera. Iñaki Gamindek duela 50 urte egin-dakoan oinarrituta, *egon*, *joan* eta *ibili* aditz sintetikoen ahalera sintetikoa osotasunez eta ongi bildurik geldu dadin saiatu gara.

Horretarako, Leitzako adin handiko hiztunen mintzo erreala bildu dugu sakonki, haien jakinduria betiko isildu beharrean, bizirik gera dakigun. Elebakar izan diren hiztunen altxorrek bizirik dirau, eta, ahalerazko sintetikoen gaian bezala, lanabes aberatsa dira hiztun adindunak gure euskara bere osotasunean hornitzeko, zalantzarik ez dagoena.

2. Ahalerari buruzko azalpen orokorrak

Lehenik eta behin, esan dezagun ahalerak, oro har, bi funtzio nagusi dituela: alde batetik, subjektuak ekintza bat burutzeko duen gaitasuna edo ahala adieraz dezake, eta, bestetik, ekintza baten gertagarritasuna.

Aurrerago baino lehen, bereiz ditzagun aditz motak bi sail nagusitan, hitz bakarrean edo bitan ematen diren kontuan hartuta: Hitz bakarrean sortzen direnei adizki sintetiko esaten zaie¹: *dakit, zihoan, darabil, daramate, zebilen*. Bi hitzetako adizkiei berriz analitiko deritze edo zenbait gramatikatan perifrastiko edo konposatu: *joanen gara, emanen dizut, ekarri zizkidan, irakurriko zuen*.

2.1 Ahalera adizki analitikoetan

Gaur egungo euskaran aditz gehienak adizki analitikoek bidez jokatzen dira. Esan bezala, aditz horiek bi osagai dituzte: adizki jokatugabea eta adizki jokatua. Adizki jokatugabea egiturako adizki nagusia da eta hark dakar eduki semantikoa. Adizki jokatua, berriz, egiturako laguntzailea da eta semantikoki hutsa. Adizkien aldiei dagokienez, ahalerazko adizki analitikoek orainaldiko, geroaldiko, iraganaldiko eta alegiazkoak osa ditzakete, horretarako, bakoitzari dagokion aldia erabiliz. Orainaldiko eta geroaldiko ahalerak orain aldiko laguntzailearekin osatzen dira; homonimoak dira: *orain joan naiteke, bihar ekar dezake*. Iragan aldiko laguntzailea dago iraganaldiko ahaleraren oinarrian: *joan nintekeen, ekar zezakeen*. Alegiazko aldikoa da ahalaria hipotetikoko molde analitikoa: *joan ninteke, ekar lezake*. Adibideek erakusten duten bezala, aldi guzietan, laguntzaileak *-ke* atzizki modala darama.

Gurean ere, Leitzan, beste hizkera gehienetan bezalatsu, adizki analitikoak erabiliz sortzen dira gehien-gehienetan ahalerazko orainaldikoak, geroaldikoak, iraganaldikoak eta alegiazkoak. Leitzako hitzun arruntak ez duke arazorik erabiltzeko edozein aditzen ahalerazko adizki horiek. Konpa-

¹ Euskal gramatiketan «adizki trinko» terminoa ere ohikoa izan da.

razio baterako; *atsalden e in zitzezken lan horik* (arratsaldean ere egin daitezken lan horiek); *gure motikoa saia littekek gehixeo eskolan* (gure mutikoa saia litekek gehixego eskolan); *atzo etorri hinddeken guri launtzea, ezñen aittu giñuzenen* (atzo etor hintekeen guri laguntzera, ezinean aritu gintunan).

2.2 *-t(z)en + ahal egitura*

Piarres Lafittek aditzera eman zigun bezala, ahala sortzeko *-t(z)en + ahal* egitura erabiltzen da ekialdeko hizkeretan: «Au lieu de *ez daiteke ikus*, on dirait aussi bien *ez da ikusten ahal*; au lieu de *ez dezakete adi: ez dute aditzen ahal*» (1962: 369).

Hala, Nafarroako eskualde askotan [aditzoia + **edin*/**ezan*] adizkia baztertuxea dute ahalaria sortzerakoan. Haren orde, [-*t(z)en + ahal + izan/edin*] perifrasi erabiltzen dute maizago. Aipatu berri dugun perifrasiak bezala, orainaldiko, geroaldiko, iraganaldiko eta alegiazko ahalaria adierazteko balio lezake: *Joaten ahal naiz. / Ekartzen ahal du. / Bihar etortzen ahalko naiz. / Bihar ekartzen ahalko du. / Atzo etortzen ahal nintzen. / Iaz ekartzen ahal zuen. Ahalera hipotetikoan. / Etortzen ahal litzateke. / Egiten ahal luke. / Ez duzu egiten ahal. / Ez zara etortzen ahal.*

Leitzan, Nafarroan izanagatik ere, ez dugu jaso erabilera horrenik. Bai ordea egitura hori bera erabiltzea desioa, nahia edo gogo bizia adierazi nahi denean (Lizarraga 2006). Esaterako: *Pentsatzen ahal dok!* (Pentsatzen ahal duk!) / *Ñen ahal diu abudo lana!* (Eginen ahal digu agudo lana!). Leitzan esaten den *borroa* edo begizkoa litzatekeena adierazteko garaian ere erabilera hori sistematikoa da: *Leprak yanen ahal hao!* (Leprak janen ahal hau!) / *Deabruk harrapatuko ahal do!* (Deabruak harrapatuko ahal du) / *Sorgiñek eramanen ahal hauea!* (Sorginek eramanen ahal haute!).

2.3 *Ahalera adizki sintetikoetan*

Arestian aipatu bezala, oro har, euskal aditz gehienak adizki analitikoek bitartez jokutzen dira, eta jokabide sintetikoa bakanagoa izan ohi da. Dena

den, badira adizki sintetikoak dituzten aditzak: *atxiki, eduki, egin, egon, ekarri, eman, entzun, eroan/eraman, erabili, etorri, ibili, iraun, irudi, izan, jakin, jario, jarraiki, joan, ukan...*

Horrezaz gain, gaur egungo euskararen ahalerazko adizki sintetikoak hagitx urriak dira, eta paradigma sintetikoetako tinkoen eutsi dieten hizkerak ere ahaleran adizki analitikoak hobesten dituzte. Hala bada, aditu gehienek arabera, ahalaria sintetikoa batez ere antzinako usadioetako begira dauden egileen idazlanetan baizik ez da agertzen. Orainaldiko adizkiek orainaldiko eta geroaldiko ahalerazko adizkiak osatzen dituzte (*orain noake, bihar dakarke*), iraganaldiko iraganaldikoak (*nindoakeen, zekarkeen*) eta alegiazko aldikoak hipotetikoak (*nindoake, lekarke*). Aldia edozein izanik, adizkiak *-ke* atzizkia beretzen du: *datorke, zetorkeen, letorke*. Sintetikoaren jokabidean, hitz bakarrekoak izaki, ahala adierazteko aipaturiko *-ke* atzizkiak gain, bere baitan biltzen dira eduki semantikoa eta osagarria (pertsonek marka, aldia...).

Den moduan delarik ere, adizki sintetikoaren urritasunari buruzko azken azalpen hori, gure euskalkiari dagokionez, gehiago zehaztu beharko litzateke zenbait aditz sintetikoetako ari garelarik bederen. Erabilera hori galdutzat jo liteke euskararen lurralde eta herri gehienetan, baita aditz sintetiko gehienek ariz gero ere. Dena dela, behinik behin, gure ikerketan jaso dugun bezala, Leitzako mintzoan ahaleraren erabilera sintetikoa oso ohikoa izan da ahozko jardunean oraindik *egon, joan* eta *ibili* aditzetan, eta gaur egun ere badarabilte molde hori gure adin handiko hiztunek.

2.4 *ba-* aurrizkia adizki sintetikoetan

Azken alderdi bat adizki sintetikoaren gainean: ezin daitezke esaldiaren hastapen absolutuan eman inolako partikularik gabe: ***daukat, **doa* haurra. Hala, normalean *ba-* aurrizkia gehitzen zaio adizkiari (*badaukat; badoa* haurra) edo gainerakoan adizkia bigarren posizioa mugitzen da (*hau daukat; haurra doa*). Murriztapen horren salbuespena agintera dugu, horretan adizkia esaldiaren hastapen-hastapenean kokatzen baita: Esate baterako: *Hago isilik!*

Gure ikerketan ere, esaldiaren hasierako *ba-* aurrizkiaren erabilera jaso dugu bete-betekoa hiztunei egindako elkarrizketetan: *Baihagoke trankil, semea lanen hasi bazak!* (Bahagoke trankil, semea lanean hasi bazaik). Hala bada, bildu ditugun kontu eta esaldi ia guztiak, ahalera adieraztekoak esan nahi baita, *ba-* aurrizkiak esanak dira.

Dena moduan delarik ere, gure hizkeran *ba-* aurrizki hori bai- bihurtzen da hikako adizkietan: *Banagoke ni gehixeo amakin* (Banagoke ni gehixeago amarekin). / *Hi re baihoake gero launtzea, ezta?* (Hi ere bahoake gero laguntzera, ezta?). Gainera, gauza bera gertatzen da gure hizkeran *ba-* aurrizkiaren ondoren *bezala* adberbioa baldin badaukagu: *Burukatea esaten zitzioren, korona bailitz bezala, burun patute.* (Buru-katea esaten zitzaionan, koroa bailitz bezala, buruan paratuta) / *Hik herea baiho bezelaxe kuidatu borda.* (Hik heurea bahu bezalaxe zaindu borda).

3. Euskararen erregistroak eta alokutiboaren erabilera

Aurrerago baino lehen, argi dezagun alokutiboa zer den eta gure erregistrorik ohikoenak zein diren, hurrengo atalak osatzeko ezinbestekoa baitugu.

3.1 Tratamendu alokutiboa

Ingurukoekin mintzo garenean, haiekiko dugun harremanaren arabera jokutzen dugu, zein tratamendu mota dugun solaskidearekin, hala jokatu dugu. Horrela bereizten ditugu hizketako erregistroak. Bi sail nagusi bereiz ditzakegu gure hizkuntzan:

- a. Tratamendu neutroa edo eztabadakoa: Ez da aintzat hartzen nor dugun mezuaren jasotzailea, eta nornahirentzat balioko du hizketa horrek.
- b. Tratamendu alokutiboa: igorleak, erregistro neutroan ez bezala, solaskidearen marka ere islatzen du adizkian, hari zuzen-zuzenean eginez.

Alokutiboan egin daiteke «hika», Leitzan eta inguruan egiten den bezala: egon dun/duk (egon da), oro har, gertutasunez edo konfiantzaz hitz egiteko; edo bestela, «zuka» (xuka) ekialdeko euskalkietan bezala, kutsu afektiboa erantsita, mintzaera adierazkorra sortuz: joan duzu (düzü) [joan da].

Alokutibo hika erabiltzen dugunean, *-n* edo *-k* txertatuko dugu adizkian, mintzalaguna emakumezkoa edo gizonezkoa dugun kontuan hartuta. Eta hika alokutiboa aukeratuz gero (zuka-xukarekin gertatzen den bezala) adizki sistema osoa aldatzen da. Horrela, hika erregistroak adizki alokutiboak erabiltzea eskatzen du, sistema osorik egokituz: Alegia, *Non habil?* galdetuz gero, hitanoari dagozkion adizki alokutiboak erabili behar direla ezartzen digu: *Hementxe nabilen / nabilek*, erabili beharko dugu, noka (emakume batekin jolasean) eta toka (gizon batekin jolasean) bereiziz.

Bada beste tratamendu bat itzalduxea dagoena, begirunezko hirugarren pertsonaren erabilerari dagokiona, «berorika» deitua, errespetu handiz erabili izan dena apaizekin-eta mintzatzeko, alokutiborik ez duena. Gure lanean gehiegi sakondu ez badugu ere, baserri munduko zenbait familiatan egun ere badarabilte, aitortu digutenaren arabera, adin handikoekin eta, jakina, apaizekin.

3.2 Hiztunen gaitasuna erregistro informalean

Ritxi Lizartzak *Hitanoa mintza hadi, lagun!* liburu mamitsuan adierazi bezala (Lizartza 2009: 18-19), hitanoaren esparrurik behinena ahozko hizkerari dagokiona da. Gauza jakina da hori erregistro informalaz ari garelako, eta, oro har, biren-edo arteko elkarrizketa zuzenez. Hala bada, testu horien ezaugarriak ohikoenak honakoak lirateke: bat-bateko elkarreragina, hutsuneekin, elipsiekin eta bukatu gabeko esaldiekin; diskurtso xumea edo sarkontasunik gabea; erritmoak, intonazioak, jardunaren abiadurak eta ahotsaren indarrak garrantzitsuak oso; irainak, txantxak, haserreak eta adierazpen ñabardurak agerikoak; adizki eta bestelako elementu askoren elipsiak; testu egitura simplea eta aditz erabilera mugatua...

Den moduan delarik ere, Leitzako ikerketan ikusi dugunaren arabera, bestelako diskurtso sakonagoak eta aberatsagoak ere gertatzen dira bi kide-

ren arteko elkarrizketetan, hika ari direla ere: adierazpen sakonagoen munduan murgiltzea, gerran hildakoez aritzea, txondorraren prozedura xehe xehe adieraztea, sorginen gaineko sinesmenak kontatzea, gizartearen arazoak aztertzea, ametsak partekatzea, arazoei aurre egitea, hipotesiak egitea, nahiak eta abar azaltzeko argibideak ematea. Bada, guk bildutakoaren arabera, aditu batzuek aurkakoa dioten arren, gaitasun handiko hiztunek ez dute arazorik argudio-azalpen testu sakonak sortzeko hitanoa erabiliz, konplexutasun sintaktiko handiko testuak izanagatik ere.

Hortaz, gure arreta piztu du Ritxi Lizartzak aipatu izana Xabier Kintana Koldo Mitxelenarekin mintzatu zela hitanoaren erabileraz, eta galdetu zio-la ea ezagutzen ote zuen inor adizkera guzietan hitanoa ongi erabiltzen zuenik. Nonbait, nekez aurki zitekeela ahaleran eta kontu konplexuetan hitano-erabiltzailerik. Mitxelenak Kintanaren galderari erantzunez esan omen zion gaitasun handiko hiztunik ezetz, ondorengoa gehituz:

Oro har, hika egiten dutenek orainaldiko eta lehenaldiko adizkera ezagunenetan erabiltzen dute, eta inoiz hipotetikoetan ere bai, baina zaila da potentzialetan ere hika entzutea (Kintana 2005: 158).

Guk egin dugun lanean, berriz atzera esan beharrean gara, garbi ikusi dugu eskolarik gabeko adin handiko hiztunak gozo eta aberats mintzo direla, eta arazo gorriarik gabe darabiltela hitanoa adizkera guzietan, izan orainaldiko, iraganaldiko edo alegiazko, izan hipotetikoan nahiz izan ahalerazko adizkirik bitxienetan; baita aditz sintetikoan ahalerazko sintetikoetan ere.

3.3 Erabilera sintaktikoa adizki alokutiboetan

Euskaltzaindiak «Adizki alokutiboak (hikako moldea)» izeneko 14. arauan eman zituen adizki alokutiboen batasunerako *formak* (hikako moldeari dagozkionak). Baina oraindik ere baditugu alokutiboari buruzko bi alderdi zalantzarri erabaki gabe dirautenak. Erabilera sintaktikoari buruzkoa da lehenengoa eta erabilera sozialari, jardun-ingurumariari edo erregistroari buruzkoa bigarrena. Bigarren horri buruzko azalpenak lan honetatik kanpo gelditzen zaizkigu ditugun helburuak kontuan hartuz.

Erabilera sintaktikoari dagokionez, *Euskara Batuaren Eskuliburuan* (EBE) alokutiboaren gainean esanak oinarritzat hartuta, oraindainoko tradizioan, ohiko erabileran betiere, menderagailua daramaten aditzek ez dute alokutiborik eramaten: Badoala esan din. / Etortzen denean, ikusiko diagu. / Eguraldi ona bada, aterako gaitun... Galderetan ere antzera jokatu izan da egundaino, hau da, alokutiborik gabe.

Guk aztertu duguna kontuan hartuz, esanen genuke Leitzan ere base-rrietako hitzun gaituek EBEk aipatzen duen bezala jokatu izan dutela. Erabilera zuzen eta egokia izan izan dute oraindaino eskuartean dugun lan honetako adibideetan argi eta garbi ikus daitekeen eran (Ikus eranskine-tan).

Egiari zor, konturatu gara, behin edo beste, galderetan hitano adizkiak erabiltzen direla, baina erabilera naturalean, mintzamen libreak, galderetan ere ez da hitanorik erabiltzen gure Leitzan. Bestalde, aitortu behar da *eta* menderagailu bidez sorturiko kausazko perpausetan, hitanoa erabiltzea ohikoa dela: *Ze in behau mutil horrekin? Beti nahi duna itteik eta. Goor in behar zeinue.* (Zer egin behar dugu mutil horrekin? Beti nahi duena egiten dik eta. Gogor egin beharko zioagu.).

4. Leitzako usadioa egon, joan eta ibili aditzen ahalera sortzerakoan: adizki analitikoekin nahiz sintetikoekin

Arestian aipatu dugun eran, gaztaroan frankotan entzunak gara gerok ahalerazko horrelako adierazpideak gurasoenean bizi ginela. Amak edo aitak, konparazio baterako, ohartu gu norabait joan nahian ginela eta ausartzen ez, eta baimena eskatu nahian ginela, eta azkenean haiek esan: *Tira, tira, motikoa. Bazoazke, bazoazke zu re. Ez geldittu etxen, zure laun guzik hara yoaan behar badue.* (Tira, tira, mutikoa. Bazoazke, bazoazke zu ere. Ez gelditu etxean, zure lagun guziek hara joan behar badute.).

Geroztik, behin gurasoen etxetik joandakoan, gero eta gutxiago entzun ditugu horrelako adizkiak. Horiek entzuteko adin handiko jendearekin egon behar baita. Hala, hainbat urtez, apenas formaren bat edo beste

entzunak garen. Dena dela, azkeneko bost urte honetan, Leitzako hitanoari buruzko lanetan hasiz geroztik, elebakar izandako baserri eremuko hitzune-kin izan ditugun jolasaldi luze horietan, aldiro entzun izan dugu aditz sintetikoetan ahalerazko adizki sintetiko *berez*i horietakoren bat. Gainera, gaude hiketako jolasaldietan maizago entzun ote ditugun erregistro neutroan ari direnean baino. Hona adibide bi: *Baihoake motel, hemen traba bakarra ittek eta* (Bahoake motel, hemen traba bakarrik egiten duk eta!); *Baihaoke neska, hementxe suen ondoan; hotza zeon eta. Zertako yoan behan uain presaka?* (Bahagoke neska, hementxe suaren ondoan; hotza zagon eta. Zertarako joan behar dun orain presaka?).

Ahalerazko adizki analitikoek eta sintetikoek adiera bera dute

Bi moldeen artean dagoen aldeaz, hau da, *joan haiteke* edo *bahoake* esatearen artean legokeen aldeaz hitzunei galdetuz gero, denek diote berdin-berdin esan daitekeela bata nola bestea: *eon natteken gehixe*o (egon naiteken gehixeago) edo *banaoken gehixe*o (banagoken gehixeago). Erabilera sintetiko horri dagokionez, hitzun horiek esaten dute hori dela lehengo hizketa zaharra, lehen maizago erabiltzen zena, haiek ere erabiltzen zutena. Eskolarik gabeko hizketa omen da hori. Era berean, argi eta garbi dute bi aldaera horiek gauza berbera esateko balio dutela. Hona, konparazio baterako, gure informatzailea den Migel Sukuntzaren azalpen argigarria: *Bai jaune. Berdin-berdin esateittok hoik. Eon gaittezek bai, tte bagautezek e bai. Horik bik igual dittok, bik gauze bera dittok. Uain, esanera diferentea duela. Baño gañekoan berbera dittok. Bai, gauze berbera dok.* (Bai jauna. Berdin-berdin esaten dituk horiek. Egon gaittezek bai, eta bagaudekek ere bai. Horiek biak berdin dituk, biak gauza bera dituk. Orain, esanera desberdina dutela. Baina gainerakoan berbera dituk. Bai, gauza berbera duk.).

Euskal gramatikan ere ez da adierazten inolako alderik dagoenik ahalera adierazteko garaian adizki analitikoaren edota sintetikoaren artean. Argi dago sintetikoaren bidez oso gutxi sortzen direla ahalerazko adizkiak, baina gainontzean ez dirudi inolako ñabardurarik ere eransten den era analitikoaren edo sintetikoaren artean.

5. Hizkuntzalariek eta adituek ahalera sintetikoaren gainean egindako lanak

Leitzako euskararen gainean lan asko eta handiak egin dira. Adizki bilketa-lanak eta bestelakoak landuak bertako euskararen sakontzeko. Ikus nabarmenenak oin-oharreen².

Gaurko aztergaiari dagokionez, dena den, egin diren lan horiez esan behar da Olanoren lanean bakarrean aipatzen dela, eta hark ere ataltxo txiki bat baino ez ziola eskaini. Olanok Leitzan Gamindek bildua axaletik aipatu besterik ez zuen egin, ahalerazko adizki horiek ba- aurrizkiarekin doazela zehaztuz: «Ahalerazko egitura hauek, izan ere, gaur egun beti *ba-* aurrizkiaren ondoan azaltzen baitira (guk geuk aurkitutako “bagoazke” bezala)» (Olano 1998: 237).

Bestelako euskal gramatika orokorretan, ezta euskarari buruzko ikerketa linguistikoetan ere, ez dugu atzeman sintetikoen ahalera sintetikoa jorratzen denik. Batez ere, ahalera sintetikoa garai bateko kontua balitz bezala aipatzen dute, gaur egun inon inork erabiliko ez balu bezala ahozkoan, eta idatzian ere bost egileren, hizkera zaharraren zaleren, bitxikeria gisa edo.

Guk, berriz, 2020. urtez geroztik Leitzako hiztun zaharregana jo dugu haien mintzoa gertutik lantzeko; besteak beste, hitanoa ikertzeko. Eta horri ekin bezain laster ohartu ginen, besteak beste, aditz sintetikoen ahalera gauza bizia zela eta sakondu beharrekoa gure hizkeraren zatia baita.

5.1 Ekarpena Iñaki Gamindek sintetikoen ahaleraren gainean egindako lanei

Gaurko langaiaren aurrekari nagusia Iñaki Gaminderen lana da (1985). Azterketa sakona eta emankorra ahaleraz eta aditz sintetikoen alokutiboaz Nafarroako hainbat euskarez, besteak beste, Leitzakoaz.

² OLANO, Mikel (1998); YRIZAR, Pedro (1992); GAMINDE, Iñaki (1985).

Hona hemen Gamindek artikulu hartan adierazitako zatirik nabarmenenak:

1. Nafarroan barna aditzak ikasteko bilkurak egitean zenbait aditz trinkorekin egiten diren erabilerek hagitz harritu gintuzten, izan ere, aditz trinkoek indikatibotik landa aski erabilera murrizta dute; baldintzak (bazengoz, baneko, e.a.) eta zenbait subjuntibo (gatozen, doala, e.a.) ezagun dira oraindino, baina, guk dakigularik bederen, ez hala ahalezkoak. Erabilera herritar hauek direla eta ahalezkoaz artikuluska hau egiteari interesgarri eritzi diogu, nola halaber, aditz trinko batzuren (*joan, egon eta ibili*) alokutiboak emateari ere.
2. Ahalezkoaren erabilera Nafarroan, eskuarki, ahalezkoa egiteko bi erabilera nagusi bereiz dezakegu: a: *Zu itxera yoaten al zara, zuk lana iten al duzu* b: *zu itxera yoan zaizke, zuk lana in dezakezuke*. Alegia, bata «edin» eta «ezan» aditzen bidez (b) eta bertzea, ordea, «ahal izan» aditzaren bidez egiten dena (a). Bigarren hau zenbait eskualdetan (Bortziriak, Baztan, Zugarramurdi eta Urdazubi) lehenaren ordean erabiltzen da kasik soilki. Halaz guztiz zenbait herritan bada hirugarren bat hain zuzen joan, egon eta ibili aditzekin egiten dena, adibidez: «bazoazke oyanera» «bagaudezke kontent». Bertzalde erran beharra dago ahalezko hauek ez direla herri guzietan berdin erabiltzen, eta zenbaitetan aztarnak soilki aurkitu ahal izan ditugula.

Arestian esan bezala, Gamindek aipatzen zuen ahalera sortzeko hirugarren erabilera hori da guk jorraturikoa. Eta hark egindakoaren gainean, Leitzako hizkerari dagokionez, honako alderdiak zehaztu beharrean gaude:

- a. Arestian aipatu dugun moduan, badira hiketan ari direnean ere erabilera hagitz aberatsa duten hiztunak, inolako arazorik gabe adierazten dutenak nahi dutena. Eta horretarako alegiazko, baldintzazko edo beselako adizkiak erabiltzen dituzte egoki eta zuzen.
- b. Hark bilduriko adizki batzuk guk era desberdin batean bildu ditugu. Hala, ohikoa den bezala ahozko mintzoan, bi aldaera edo gehiago leudeke zenbait adizkitan. Hona aditzez aditz Gamindek emandakoak eta guk jasotakoak:

- 1) Egon aditzaren ahalerazko adizki pluralak: Gamindek *gauzteke*, *zauzteke*, *zauztekea* eta *dauzteke* formak bildu zituen. Guk ordea *gauitezke*, *zauitezke*, *zauitezkea* eta *dautezke* jaso ditugu hiztunen ahotan. Idazterakoan sorturiko akatsa ere izan liteke. Gure grabazioetan, behinik behin, garbi entzuten dira guk emandako aldaerak.
 - 2) *Ibili* aditzari dagokionez, pluraleko forma hauek jaso zituen hark: *gabiltzateke*, *zabiltzateke*, *zabiltzatekea* eta *dabiltzateke*. Horiek $a > e$ asimilazioa islatu gabe ($i + a > i + e$) bildu zituen hark. Gurean, askotan gertatzen den asimilazioa da hori. Eta guk jaso dugunaren arabera, asimilazio hori sistematikoki gertatzen da *ibili* aditzean. Hala, guk forma hauek jaso ditugu: *gabiltzeteke*, *zabiltzeteke*, *zabiltzetekea* eta *dabiltzeteke*.
 - 3) Hiketako adizki hauek paratu zituen hark /y/ ahoskeraz bailira bezala: *yahoke*, *yoake*, *yabilke*. Guk *hagoke*, *hoake* eta *habilke* bildu ditugu. Edozein moduz, *ba-* (*bai-*) aurrizkiak ematen dira gehien-gehienetan adizki horiek Leitzan, eta badirudi horren ondorioz eman zituela Gamindek yota soinuaz. Hala iradoki digu Mikel Olanok ere, *baiuen* eta *baieki moduko adizkiak* atalean (1998: 237). Guk, betiere, *baihaoke*, *baihoake* eta *baihabilke* jaso ditugu haren *bayagoke*, *bayoake* eta *bayabile* formen ordez.
- c. Ahalera sintetikoa orainaldian bakarria bildu zuen Gamindek: *nagoke*, *nabilke*, *noake*... Iraganaldikoa eta alegiazkoa ez zituen bere artikulua horretan jorratu. Guk tempus guzietan erabilitako adizkiak bildu ditugu: *nabilke* (ibil naiteke), *nebilke* (ibil ninteke), *nebilkeen* (ibil nintekeen)...
- d. Erregistroak kontuan hartuta, hiketako formak eman zituen Gamindek, *hi* pertsonari dagozkionak (*haoke*, *hebilke*, *hoake*). Ez ordea hikako alokutiboari dagozkion adizkiak: *neoken* (nengoken) edo *neokek* (nengokek), *nebilken* (nenbilken) edo *nebilkek* (nenbilkek), *niken* (noaken) edo *nikek* (noakek)... Guk hikako alokutiboko adizkiak ere bildu ditugu.

Xehetasunak xehetasun, Gamindek Nafarroako herri askotako adizki sintetikoak bildu zituen, baita *egon*, *joan* eta *ibili* aditzen ahalerazko sintetikoa orainaldian adieraztekoak ere. Hala, eskualde zabaletan erabilera hori bazegoelakoa agerian paratu zigun, eta hori hagitz inportantea da. Arrasto horri esker, besteak beste, osatu ahal izan dugu guk geure ikerketa.

6. Aditz taulen aurkezpenaz bi kontu argigarri

Osatu ditugun tauletan ahaleraren ohiko sailkapena erabili dugu: ahale-
ra orainaldikoan, ahaleira iraganaldikoan eta ahaleira alegiazkoan. Trata-
mentuari dagokionez, lehenik erregistro neutroko adizkiak paratu ditugu,
eta jarraian hikako alokutiboari dagozkionak, noka eta toka. Lehendabizi,
ezkerraldean, Leitzako euskarari paratu ditugu adizkiak, eta, ondoren, haien
eskuinaldean, batuan.

Taulak osatzeaz gain, garbi gera dadin zertsu erabilera egiten den, nola-
tsuko egoeretan erabiltzen den eta zer nolako kontu eta esaldiak osatzen
dituzten adizki horiek erabiliz, hiztunen ahotik bildutako esaldi-kontu-
kontakizun laburrak bildu, eta paratu ditugu haiek esan bezalatsu lehenik,
eta, ondoan, batuan izanen lirakeken bezala. Horiek guziak eranskinetan
paratu ditugu.

Hiketako jolasaldietan hitanoa erabiliz bilduriko adizki guzi-guziekin
esaldi-eredu bana bederen islatu nahi izan dugu geure lanean, nola euskal-
kian, hala batuan. Hori guzia egin dugu honako xede honekin: irakurleak
argi eta garbi izan dezan noiz eta nola erabiltzen den ahaleira sintetiko hori
gure mintzoan. Eta, bestalde, galtze bidean dugun alokutiboa era zuzen eta
egokiz nola darabilten aztertu, edo, gutxienez, gozatu, nahi duen orok esku-
ra izan ditzan Leitzan bilduriko adibide errealak.

7. Leitzako euskarari maizenik gertatzen diren aldaketa fonetikoak

Ahozko moldera hurbilpena egiten saiatu gara hiztunen mintzoa ahalik
eta erarik zehatzenean ematearren, hiztun horien mintzoa zehatzasun osoz

ematearren, alegia. Haiek ditugu eredu, euskara hizkuntza bakarra era naturalean ikasitakoak eta gure aldean hizketa aberatsagoaren jabe. Hala, euskalkian esaten den *bezalatsu* idazten saiatu gara. Ondoren, eta ondoan, batuan izanen lukeen forma ere eman dugu ulermena eta erabilera errazteko.

Bidenabar, gure herriko hizkera interesgarriztat duen nornahirentzat lagungarria gerta daitekeelakoan, aldaketa fonetikoan berri emanen dugu jarraian. Gainera, gure ahozko euskara paperan paratu dugun bezala irakurterakoan, mesedegarria izanen zaiola iruditzen zaigu; errazagoa gerta baitaiteke ulertzea.

Hona hemen gure lanean bilduriko adierazpenetan maizenik gertaturiko aldaketa fonetikoak:

1. Bi bokalen artean kontsonante bat galtzea (VCV → V_V)

Kontsonante galera horiek oso maiz gertatzen dira, eta kontsonanterik gabe paratu ditugu guk hitz horiek. Bokala luzatzea dakar gertaera horrek askotan: *baakin* «badakin», esaterako. Hona beste adibide batzuk sailetan banatuak:

/r/ dardarkari bigunaren galera: *dantzaa* (dantzara), *bordaa* (bordara), *eskolaa* (eskolara), *güe* (gure), *suen* (suaren), *beire* (begira), *lanea* (lanera), *noa* (nora), *atea* (atera), *neonen* (neronen)...

/d/ herskari ozenaren galera: *eoizin* (edozein), *eo* (edo), *duelako* (dudalako), *añe* (adina), *aittu* (aditu), *beharkoiñet* (beharko dinat)...

/g/ herskari ozenaren galera: *eon* (egon), *zeok* (zegok), *haoke* (hagoke), *laundu* (lagundu), *in* (egin), *goorra* (gogorra), *heoke* (hengoke), *ezaunek* (ezagunak)...

/b/ herskari ozenaren galera: *pixkoat* (pixka bat), *metroat* (metro bat), *aleatzuk* (ale batzuk)...

2. $a > e$ asimilazioa: $u, i + a > u, i + e$

Askotan gertatzen da asimilazio hori gurean, herriaren izenetik beretik hasita: *Leitze* «Leitza».

-i- bokalaren ondoren: *nahi bedo* (nahi badu), *fabrike* (fabrika), *zebil-tzetekeken* (zebilzken), *zébiltzen* (zébiltzan), *diñet* (dinat), *anaie* (anaia), *gabil-tzetekek* (gabilzkek), *yarritte* (jarrita), *politte* (polita), *nahi been* (nahi ba-dun)...

-u- bokalaren ondoren: *lekue* (lekua), *mundue* (mundua), *ninddunen* (nindunan), *gauze* (gauza), *hartute* (hartuta), *zerue* (zerua), *dirue* (dirua), *eun betzutan* (egun batzuetan), *daukune* (daukaguna)...

3. Bokal aldaketak: $u > o$, $i > e$, $o-e > e-e$

$u > o$ irekiera, bokal aldaketa: bokalaren irekieraren ondorioz gertatzen da $u > o$ bihurtzea. Leitzako eta inguruko herrietako adizkien ezaugarririk nabarmenetakoa. Honatx adibideak: *dok* (duk), *ditton* (ditun), *gattok* (gaituk), *gore* (gure), *bano* (banu), *baiho* (bahu), *mutille* (mutila), *emakomek* (emakumeak), *somatu* (sumatu)...

$i > e$ irekiera edo bilakaera. Ez da sistematikoa, biak entzuten dira: *nek* (nik); *beajea* (biajea), *ekusi* (ikusita), *epurdie* (ipurdia), *itxen* (etxean)...

$o-e > e-e$ bokal berdintzea: omen partikularen kasuan *emen* esaten da: *asko emen ditton* (asko omen ditun).

4. *i* bokalaren ondorengo sabaikaritzea

Bustidura ere deitua izan den ezaugarri hori *i* bokalaren ondoren honako kontsonante hauetakoren bat datorrenean: *l*, *n*, *t* eta *d*.

/l/ albokoarekin: *Ibilli* (ibili), *mutille* (mutila), *illoak* (ilobak)...

/n/ herskari sudurkariarekin: *iñori* (inori), *diñu* (dinagu), *iñen* (eginen), *niñenen* (ninan), *giñenen* (geninan), *ninddunen* (nindunan)...

/t/ herskari gorrarekin: *yeki tte* (jaiki eta), *etorri tte* (etorri eta), *politte* (polita), *ekusitte* (ikusita), *itten* (egiten), *dittok* (dituk), *zitteken* (daiteken), *natteken* (naiteken), *yarritte* (jarrita), *littezen* (litezken), *ibillitte* (ibilita), *nahittenahiezkoa* (nahitanahiezkoa)...

/d/ herskari ozenarekin: *in dde* (egin eta), *ainddu* (agindu), *minddu* (mindu), *bilddu* (bildu), *añe* (adina), *yoateitton* (joaten ditun)...

5. /j/ fonemaren ahoskera

Gure hizkeran bi modutan ahoskatzen da /j/ fonema: gipuzkeraren arabera [x] (jan [xan]) ebakitzen da, igurzkari belar ahoskabea edo nafarre-razko ahoskeran (jan [yan]), sabaiko igurzkari ahostuna bihurtuta. Leitzan, Gipuzkoako mugatik gertu delarik ere, ahoskerarik ohikoena [y] egitearena da: joan [yoan], jasa [yasa]. Gipuzkeraren erara, [x] ahoskatuz, oso hitz gutxi dira gurean.

[y] ahoskera: *yakiñe* (jakina), *yaso* (jaso), *yo ta sue* (jo eta sua); *yoateik* (joaterik), *yaiio* (jaiio), *yostetan* (jostetan), *yekiko* (jaikiko), *yendea* (jendea)...

[x] ahoskera: *jaune* (jauna), *majin bat* (makina bat), *jainkoa* (jainkoa)...

6. /n/ herskari sudurkariaren eta /r/ dardarkari bigunaren ondoren, /s/ txistukari frikari apikari-hobikaria /ts/ afrikatua bihurtzea, eta /s./ txistukari frikari bizkarkari-hobikaria /ts./ txistukari frikaria bihurtzea

Bilakaera hori oso arrunta da gurean:

/n/ herskari sudurkariaren ondoren: *itten tziñziok* (egiten zaiok), *eman tzeidenen* (eman zidanen), *itten tziñenen* (egiten zinan), *uzten tzeidenea* (uzten zidaten), *eaten tzetik* (edaten ditik)...

/r/ dardarkari bigunaren ondoren: *behar tzetik* (behar ditik)...

Berdintsu gertatzen da ez ezezko adberbioaren ondoren /s./ txistukari frikaria datorrenean: *etzitzien* (ez zitzaidaan), *etzuna* (ez zuena), *etzekit* (ez zekiat), *etxeon ongi* (ez zegoen ongi), *etzekik* (ez zekik)...

7. Ahoskabetzea: /b/, /d/, /g/ kontsonante ahostunak /p/, /t/, /k/ ahoskabe bihurtzea

/b/: *baietz pa* (baietz ba), *ex pado* (ez badu), *yakiñe zeok pa* (jakina zegok ba), *etzekiñet pa* (ez zekinat ba)...

/d/: *Ez tin* (ez din), *ez tiñet* (ez dinat), *ez ton* (ez dun), *galazie zeon da* (galarazia zagon eta), *ez tiu* (ez diagu)...

/g/: *hemengoak katton* (hemengoak gaitun), *nahi izan ezkeo* (nahi izanez gero), *ez kiñezkenen ibilli* (ez gintezkenan ibili)...

8. Aditz nagusiaren eta laguntzailearen arteko elkarketa

Maiztasun handikoa da loturik emateko joera hori eta elkarketa horrek aldaketak sortzen ditu bokaletan eta kontsonanteetan, galerak eta aldaerak. Honatx adibide batzuk: *nahi baldin baan* (nahi baldin badun), *gastatzen baak* (gastatzen baduk), *behain* (behar din), *helduk* (heldu duk), *bizik* (bizi duk), *behak* (behar duk), *yoan behanenen* (joan behar dunanean), *hondatu ittek* (hondatu egiten duk), *ze usten ba?* (zer uste dun ba?)...

9. Baihaoke, baihoake eta baihabilke bezalako adizkiak

Leitzan, hiketan ari garenean, baldintza esaldietan *ba-* hutsik beharrean *bai-* erabiltzen da (*ba-* + *hi* > *bai-* + *hi*): *baihabilke* (bahabilke), *baiheuke* (baheuke), *baihaoke* (bahagoke), *baihaiç* (bahaiz), *baiho* (bahu), *baihoake* (bahoake), *baiheki* (baheki)...

8. Ahalera sintetikoaren taulak

8.1 EGON aditza

EGON	Ahalera sintetikoa, orainaldia					
	ERREGISTRO NEUTROA		NOKA (alokutiboa)		TOKA (alokutiboa)	
	Leitza	batua	Leitza	batua	Leitza	batua
NI	naoke	nagoke	neoken	nagoken	neokek	nagokek
HI	haoke	hagoke	haoke	hagoke	haoke	hagoke
HURA	daoke	dagoke	zeoken	zagoken zegoken	zeokek	zagokek zegokek
GU	gautezke	gaudeke	gautezken geutezken	gaudeken	gautezkek geutezkek	gaudekek
HAIEK	dautezke	daudeke	zeutezken	zaudeken zeudeken	zeutezkek	zaudekek zeudekek
ZU	zautezke	zaudeke				
ZUEK	zautezkea	zaudekete				

EGON	Ahalera sintetikoa, iraganaldia					
	Erregistro neutroa		NOKA (alokutiboa)		TOKA (alokutiboa)	
	Leitza	batua	Leitza	batua	Leitza	batua
NI	neoken	nengokeen	neokenen	nengokenan	neoken	nengokean
HI	heoken	hengokeen	heoken	hengokeen	heoken	hengokeen
HURA	zeoken	zegokeen	zeokenen	zegokenan	zeoken	zegokean
GU	geuntezken	geundekeen	geuntezkenen	geundekenan	geuntezken	geundekean
HAIEK	zeutezken	zeudekeen	zeutezkenen	zeudekenan	zeutezken	zeudekean
ZU	zeuntezken	zeundekeen				
ZUEK	zeuntezkean	zeundeketen				

EGON	Ahalera sintetikoa, alegiazkoa					
	Erregistro neutroa		NOKA (alokutiboa)		TOKA (alokutiboa)	
	Leitza	batua	Leitza	batua	Leitza	batua
NI	neoke	nengoke	neoken	nengoken	neokek	nengokek
HI		hengoke	heoke (hengoke)	hengoke	heoke (hengoke)	hengoke
HURA	leoke	legoke	leoken	legoken	leokek	legokek
GU	geuntezke	geundeke	geuntezken	geundeken	geuntezkek	geundekek
HAIEK	leutezke	leudeke	leutezken	leudeken	leutezkek	leudekek
ZU	zeuntezke	zeundeke				
ZUEK	zeuntezkea	zeundekete				

8.2 JOAN aditza

JOAN	Ahalera sintetikoa, orainaldia					
	Erregistro neutroa		NOKA (alokutiboa)		TOKA (alokutiboa)	
	Leitza	batua	Leitza	batua	Leitza	batua
NI	noake	noake	niken	noaken	nikek	noakek
HI	hoake	hoake	hoake	hoake	hoake	hoake
HURA	dike	doake	ziken	zoaken	zikek	zoakek
GU	goazke	goazke	gizken	goazken	gizkek	goazkek
HAIEK	dizke	doazke	zizken	zoazken	zizkek	zoazkek
ZU	zoazke	zoazke				
ZUEK	zoaz(te)kea	zoazkete				

JOAN	Ahalera sintetikoa, iraganaldia					
	Erregistro neutroa		NOKA (alokutiboa)		TOKA (alokutiboa)	
	Leitza	batua	Leitza	batua	Leitza	batua
NI	niken	nindoakeen	nikenen	nindoakenan	niken	nindoakean
HI	hiken	hindoaken	hiken	hindoaken	hiken	hindoaken
HURA	ziken	zihoakeen	zikenen	zihoakenan	ziken	zihoakean
GU	giñezken	gindoazkeen	giñezkenen	gindoazkenan	giñezken	gindoazkean
HAI EK	zizken	zihoazkeen	zizkenen	zihoazkenan	zizken	zihoazkean
ZU	ziñezken	zindoazkeen				
ZUEK	ziñezkean	zindoazketen				

JOAN	Ahalera sintetikoa, alegiazkoa					
	Erregistro neutroa		NOKA (alokutiboa)		TOKA (alokutiboa)	
	Leitza	batua	Leitza	batua	Leitza	batua
NI	nike	nindoake	niken	nindoaken	nikek	nindoakek
HI	hike	hindoake	hike	hindoake	hike	hindoake
HURA	like	lihoake	liken	lihoaken	likek	lihoakek
GU	giñezke	gindoazke	giñezken	gindoazken	giñezkek	gindoazkek
HAI EK	lizke	lihoazke	lizken	lihoazken	lizkek	lihoazkek
ZU	ziñezke	zindoazke				
ZUEK	ziñezkea	zindoazkete				

8.3 **IBILI** aditza

IBILI	Ahalera sintetikoa, orainaldia					
	Erregistro neutroa		NOKA (alokutiboa)		TOKA (alokutiboa)	
	Leitza	batua	Leitza	batua	Leitza	batua
NI	nabilke	nabilke	nebilken	nabilken	nebilkek	nabilkek
HI		habilke	habilke	habilke	habilke	habilke
HURA	dabilke	dabilke	zebilken	zabilken zebilken	zebilkek	zabilkek zebilkek
GU	gabiltzeteke	gabiltzke	gabiltzeteken (gebiltzeteken)	gabiltzken	gabiltzetekek (gebiltzetekek)	gabiltzkek
HAIEK	dabiltzeteke	dabiltzke	zebiltzeteken	zabiltzken zebiltzken	zebiltzetekek	zabiltzkek zebiltzkek
ZU	zabiltzeteke	zabiltzke				
ZUEK	zabiltzetekea	zabiltzkete				

IBILI	Ahalera sintetikoa, iraganaldia					
	Erregistro neutroa		NOKA (alokutiboa)		TOKA (alokutiboa)	
	Leitza	Batua	Leitza	batua	Leitza	batua
NI	nebilken	nenbilkeen	nebilkenen	nenbilkenan	nebilken	nenbilkean
HI	hebilken	henbilkeen	hebilken	henbilkeen	hebilken	henbilkeen
HURA	zebilken	zebilkeen	zebilkenen	zebilkenan	zebilken	zebilkean
GU	giñebiltzeteke	genbiltzkeen	giñebiltzetekeken	genbiltzkenan	giñebiltzetekeken	genbiltzkean
HAIEK	zebiltzeteke	zebiltzkeen	zebiltzetekeken	zebiltzkenan	zebiltzeteke	zebiltzkean
ZU	ziñebiltzeteke	zenbiltzkeen				
ZUEK	ziñebiltzetekean	zenbiltzketen				

IBILI	Ahalera sintetikoa, alegiazkoa					
	Erregistro neutroa		NOKA (alokutiboa)		TOKA (alokutiboa)	
	Leitza	batua	Leitza	batua	Leitza	batua
NI	nebilke	nenbilke	nebilken	nenbilken	nebilkek	nenbilkek
HI		henbilke	hebilke	henbilke	hebilke	henbilke
HURA	lebilke	lebilke	lebilken	lebilken	lebilkek	lebilkek
GU	giñebiltzeteke	genbilzke	giñebiltzeteken	genbilzken	giñebiltzetekek	genbilzkek
HAI EK	lebiltzeteke	lebilzke	lebiltzeteken	lebilzken	lebiltzetekek	lebilzkek
ZU	ziñebiltzeteke	zenbilzke				
ZUEK	ziñebiltzetekea	zenbilzket				

Bibliografia

ALBERDI, Xabier (1993). «Hika tratamenduaren balore sozio-afektiboak», *Fontes Linguae Vasconum* 64: 425-442. <https://doi.org/10.35462/flv64.5>

ALBERDI, Xabier (1994). «Hitanoa non eta nork erabiltzen duen», *Euskera* 39 (3): 983-993. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/49990.pdf>

ALBERDI, Xabier (1996a). *Eskola gramatika: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza*. Elkar S.L.

ALBERDI, Xabier (1996b). *Euskararen tratamenduak: erabilera*. Iker 9. Euskaltzaindia.

ALBERDI, Xabier (2026). «Hitanoa», *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*. www.ehu.eus/seg

ERDOZIA, Jose Luis (2016). «Etxarrierako hitano-alokutiboak», *Fontes Linguae Vasconum* 122: 303-364. <https://doi.org/10.35462/flv122.2>

EUSKALTZAINDIA. (1979). *Euskal aditz batua*. Euskaltzaindia.

EUSKALTZAINDIA. (2021). *Euskararen Gramatika*. Euskaltzaindia.

GAMINDE, Iñaki (1985). «NOR-en ahalezko oraina eta JOAN, IBILI eta EGON aditzen alokutiboak (Nafarroan)», *Fontes Linguae Vasconum* 46: 215-264. <https://doi.org/10.35462/flv46.2>

KINTANA, Xabier (2005). «Larrazaga poeta zahar gaztearen berri onak», *Euskera* 50 (1): 129-159.

LAFITTE, Piarres (1962). *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire)* (2. arg.). Amis du Musée Basque et Ika.

LIZARRAGA, Bittorio (2006). «Leitzako hizkera adierazkorra: biraoak», *Fontes Linguae Vasconum* 103: 487-552. <https://doi.org/10.35462/flv103.5>

LIZARTZA, Ritxi (2009). *Hitanoa mintza hadi, lagun!* Maluta.

MITXELENA, Koldo (1983). «Euskalkien ageriko aurpegia», *Euskera* 28 (1): 245-252. <https://www.euskaltzaindia.eus/dok/euskera/50886.pdf>

OIARTZUN, Fernando (2022). *Hika eta toka. Noka ere Toka!* Altzadi Leitzako Kultur Elkartea.

OLANO, Mikel (1998). *Areso eta Leitzako hizkerak*. Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia.

ORMAETXEA, Nikolas, «Orixe» (1987). *Quiton arrebarekin*. Ibaizabal. <https://klasikoak.armiarma.eus/pdf/OrixeKiton.pdf>

RIJK, Rudolf de (2007). *Standard Basque: A Progressive Grammar*. The MIT Press.

YRIZAR, Pedro de (1992). *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional; (estudio dialectológico)*. Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia.

ZELAIETA, Edu (2008). *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*. Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia.

Eranskinak

1. eranskina

EGON aditzaren ahalera sintetikoa erabiliz ahoz jasotako adibideak

a) Ahalera sintetikoa, orainaldia.

Testuingurua:

Emakume batek beste bati adierazten dio badakiela etxean erazoko (zainduko) dutela.

Adibidea:

*Ni bizi natteken trankil, bazekiñet eta etxeok erazoko naudeala bizi naizen arten. Da nik ez tiñet gehio behar. Hil ezkeo, ez tin beharrik izaten. Da **baneoken** trankil eta gozo, neonen etxen.*

Ni bizi naiteken trankil, bazekinat-eta etxeok zainduko nautela bizi naizen artean. Eta nik ez dinat gehiago behar. Hilez gero, ez din beharrik izaten. Eta **banagoken** trankil eta gozo, neronen etxean.

Testuingurua:

Gizon zahar batek lagun bati esaten dio gaur egun ezin duela lanik egin baserrian.

Adibidea:

*Ni re **baneokek** trankil, yaio nitzen baserrin bizi bainaiz. Baño batzutan enak eotten. Ezin duelako laundu kixkaltzen eotten nak. Kasik ibilli re ez bainaiz itten, da ezin laundu lanetan. Baño tira, dena dela, betire, etxeokak denak osasunekoak eta irabazin. Eta horik holaxe ittok.*

Ni ere **banengokek** trankil, jaio nintzen baserrian bizi bainaiz. Baina batzuetan ez nauk egoten. Ezin dudalako lagundu kixkaltzen egoten nauk. Kasik ibili ere ez bainaiz egiten, eta ezin lagundu lanetan. Baina tira, dena dela, betiere, etxeokak denak osasunekoak eta irabazian. Eta horiek horrelaxe dituk.

Testuingurua:

Etxekoandre batek auzoko neskatxa bati esaten dio egoteko lasai suaren ondoan, hotza baitago kanpoan.

Adibidea:

*Bero-beroan hemen eon hobe don kanpoan hotzak baño. Ta yoane haiz yoan behanenen. Da uain **baihaoke** trankil, suen ondoan nahi añe denboan. Denantzat bazeon hemen lekue.*

Bero-beroan hemen egon hobe dun kanpoan hotzak baino. Eta joanen haiz joan behar dunanean. Eta orain **bahagoke** trankil, suaren ondoan nahi adina denboran, denentzat bazegon hemen lekua.

Testuingurua:

Lagun batek beste bati esaten dio semea lanean hasi bazaio, pozik egoteko moduko berria dela hori.

Adibidea:

*Bai, yakiñe, **baihaoke** trankiltxeo: zergatiken semea lanen hasi baldin bazak, hark irabazi iñen dik. Eta irabazten baldin bado, hiri ez tik diruik eskatuko. Bee dirukin pasatukok, seuro aski. Trankil eotteko modue dok hori. Beti kezkaz ez. Semek ze iñen ote due?*

Bai, jakina, **bahagoke** trankilxeago: zeren eta semea lanean hasi baldin bazaik, hark irabazi eginen dik. Eta irabazten baldin badu, hiri ez dik dirurik eskatuko. Bere diruarekin pasatuko duk, seguro aski. Trankil egoteko modua duk hori. Beti kezkaz ez. Semeek zer eginen ote dute?

Testuingurua:

Ahizpa batek beste bati esaten dio alabari telebistari begira egoten uzteko.

Adibidea:

*Gue neskatoak eskolako lanak iñek badauzke, **bazeoken** lasai. Utzi zaion. Eskolako lanak in baditto, telebistai beire dagoala, nahi bedo. Ze inporta do ba?*

Gure neskatoak eskolako lanak eginak badauzka, **bazegoken** lasai. Utz iezaien. Eskolako lanak egin baditu, telebistari begira dagoela, nahi badu. Zer inporta du ba?

Testuingurua:

Fabrika egitea onuragarria izan zen Leitza herriarentzat.

Adibidea:

–Herrin fabrike in tzenen, uain yendea kontentu **bazeoket**: zergatiken hortatxetiken bizik (bizi dok) herrie, eta ingurumari hau dena, gaña. Goizuta aldetik eta, Donoztabe aldetik eta, autobuse ta autobuse ta autobuse, horrea lanea.

–Herrie fabrikek zenbat biztu dun inork etzekik.

–Herrian fabrika egin zenean, orain jendea kontent **bazegoket**: zeren eta horrexetatik bizi duk herria, eta ingurumari hau dena, gainera. Goizueta aldetik eta, Doneztebe aldetik eta, autobusa eta autobusa eta autobusa, horra lanera.

–Herria fabrikak zenbat piztu duen inork ez zekik.

Testuingurua:

Belar-girorik ez dela eta bi neska baserritar elkarrekin hizketan.

Adibidea:

Belarrea joan behar giñenen baño denboa etzeon seuroa. Goizen belar-giro pixkoat baihuen, da gu ez katton joan. Da uain atsalden kambioa din. Da uain ez katton fiatzen belarra zabaltzea. Ta uain **bagautezken**; inorako presarik ez tiñu.

Belarrera joan behar ginenan, baina denbora (eguraldia) ez zagon segurua. Goizean belar-giro pixka bat bazunan, eta gu ez gaitun joan. Eta orain arratsaldean aldaketa din. Eta orain ez gaitun fidatzen belarra zabaltzera. Eta orain **bagautezken**: inorako presarik ez dinagu.

Testuingurua:

Gizon batek lagun bati esaten dio hemen beste leku askotan baino hobeki bizi garela.

Adibidea:

–Beste lekutan baño askoz hobekio geudek hemen. Da **bagautezkek** kontentu; zergatik, aitzen dienak aitu, zenbait lekutatiken, ze kastigu dagoan ekusitte. Ekusten diu beste lekutan zahar asko, pobre asko eta mixeri asko.

–Eta hemen, berriz, uaindik e, bizitteako modun geudek biñipin. Da besteik etzeok hemen eskatzeik. Jainkoak osasune emagule urte askoan.

–Bueno, hemendik aurrea urte asko ez tittok izanen. Baño, dena dela, eskatu betire.

–Beste lekuetan baino askoz hobeki gaudek hemen. Eta **bagautezkek** kontent; zeren eta aditzen direnak adituta, zenbait lekutatik, zer kastigu dagoen ikusita. Ikusten diagu beste lekutan zahar asko, pobre asko eta miseria asko.

–Eta hemen, berriz, oraindik ere, bizitzeko moduan gaudek behinik behin. Eta besterik ez zagok hemen eskatzerik. Hark osasuna eman diezagula urte askoan.

–Bueno, hemendik aurrera urte asko ez dituk izanen. Baina, dena dela, eskatu betiere.

Testuingurua:

Bi neska haien lehengusuen familiaz hizketan, ongi doakiela eta pozik egotekoa dela hori.

Adibidea:

–Bai, gue lehengusu horin famillin etzeuden kejtazeko modun. Denak illoak eta denak lanen ai ditton, denak irabazin. Da denak e trankil bizi zittezken. Lana izan ezkeo, dirue bazeon. Da dirue izan ezkeo, bizi zitteken.

–Bai, bai, **bazeutezken** kontentu te trankil gue lehengusu horiek.

–Bai, gure lehengusu horien familian ez zeuden kexatzeko moduan. Denak ilobak eta denak lanean ari ditun, denak irabazian. Eta denak ere trankil bizi daitezken. Lana izanez gero, dirua bazegon. Eta dirua izanez gero, bizi daiteken.

–Bai, bai, **bazeutezken** kontent eta trankil gure lehengusu horiek.

Testuingurua:

Bi anaia hizketan haien beste anaiek alorreko lanetarako girorik ez dutela.

Adibidea:

–Gaur **bazeutezkek** etxean gore anaiek alorrea gabe. Ta gaña, eotten baldin badie, askoz e hobe, lohiakin erabiltzen den lurra hondatu ittek.

–Hondatute uztek lohiakin itten den gauze, ta han dagoanaï re kalte itten tzitziok, artoai edo dagoanaï, lohiakin ibillite.

–Gaur **bazeutezkek** etxean gure anaiak alorrera gabe. Eta gainera, egoten baldin badira, askoz ere hobe, lohiarekin erabiltzen den lurra hondatu egiten duk.

–Hondatuta uzten duk lohiarekin egiten den gauza, Eta han dagoenari ere kalte egiten zaiok, artoari edo dagoenari, lohiarekin ibilita.

b) Ahalera sintetikoa, iraganaldia.

Testuingurua:

Emakume batek lagun bati kontatzen dio aitzak nola jo zuen umetan bihurrikeria egiteagatik. Ondoko baserrira (Joantxenea) joan nahi zuen lagunengana eta aitzak ez zion utzi.

Adibidea:

Behin nik Yoantxenea joan nahi yostetan ibiltzea launekin. De attek ezetz. Zerbatte in beharra baginenen. Siesta pixkoat indde, yekiko zela ta in behar ginun hure inen ginula. Bueno. Ta salan etzanda yarritte lurren, da kantari ni. Ta atte ondo-ondoan, koartoa. Halako baten, yeki tte etorri tte hure palize! Ni re ixil-ixillik **baneokenen**. Baño ez ninddunen eondu. Te hartu nienen palize earra. Nik e nee pikardie: attei siesta galaztea, nei utzi etzielako launeta yoaten, yostetan ibiltzea. Ta, halako baten, yekin, dde hartu besondotik eta eman tzeidenen epurdiko mamitan krixton palize.

Behin nik Joantxenera joan nahi jostetan ibiltzera lagunekin. Eta aitzak ezetz. Zerbat egin beharra baginena. Siesta pixka bat eginda, jaikiko zela eta egin behar genuen hura eginen genuela. Bueno. Eta salan etzanda jarrita lurrean eta kantari ni. Eta aita ondo-ondoan, gelan. Halako batean, jaiki eta etorri eta hura paliza! Ni ere isil-isillik **banengokenan**. Baina ez nindunan egon. Eta hartu ninan paliza ederra. Nik ere neure pikardia: aitari siesta galaraztea, niri utzi ez zidalako lagunetara joaten, jostetan ibiltzera. Eta, halako batean, jaiki dun, eta hartu besondotik eta eman zidanen ipurdiko mamietan kristoren paliza.

Testuingurua:

Arrebak anaiari kargua hartzen dio lehengo egun batean euria ari zuenean ateratzeagatik.

Adibidea:

*Lehengoan eurie botatzen tzien, zaparradaka. Ta, noa atea hitzen hi? Dena ure ittea. Earki itxen lehor-lehorren eon besteik ez eta. Gizakik ze ibiltzen tzatea? Guekin baten **baiheoken** hantxe. Beño ez.*

Lehengoan euria botatzen zian, zaparradaka. Eta, nora atera hintzen hi? Dena ura egitera. Ederki etxean lehor-lehorrean egon besterik ez eta. Gizakiak zer ibiltzen zarete? Gurekin batean **bahengokeen** hantxe. Baina ez.

Testuingurua:

Emakume batek gazteago bati azaltzen dio garai batean euriak askotan izorratzen ziela belar-lana.

Adibidea:

*Ordun nekazarie, belarreako egualdi ona itten bazun, **bazeokenen** pozik. Baño seittun eurie ekartzen tziñenen, da hark izurratzen geundenen denak. Askotan eurie itten tziñenen giroa kentzeko aña bakarra: «Rra», etorri. Tte, «rra», eurie yasa. Ta fuera. Belarra bustie. Ta belar bustie ezin eaman ganbara.*

Orduan nekazaria, belarrerako eguraldi ona egiten bazuen, **bazegokenan** pozik. Baina segituan euria ekartzen zinan, eta hark izorratzen gintunan denak. Askotan euria egiten zinan giroa kentzeko adina bakarra: *Rra*, etorri, eta *rra*, euria jasa. Eta fuera. Belarra bustia. Eta belar bustia ezin eraman ganbarara.

Testuingurua:

Neska batek azaltzen dio beste bati auzolanera joan zirela ondoko baserrira, eta lana bukatu zutenean geldi zitezkeela tarte batez, baina aitak ez ziela utzi.

Adibidea:

*Gu re eon giñezkenen han, bestekin baten, lanak bukatu giñuzenen. Beño, attek ez baitziun uzten. «Guazen da guazen.» Da hala eottezkeo, ez tin bate balio eottek. Eta eun hartan **bageuntezkenen** han gehixeo, baño ez!*

Gu ere egon gintezenen han, besteekin batean, lanak bukatu genituenean. Baina, aitak ez baitzigun uzten. «Goazen eta goazen». Eta hala egotez gero, ez din batere balio egoteak. Eta egun hartan **bageundezenen** han gehixego, baina ez!

Testuingurua:

Emakume batek azaltzen dio gazteago bati ezkontza adostu asko izaten zela eta senarra nolakoa izanen zen ez zutela jakiten.

Adibidea:

*Motille alde-aldekoa tokatu ezkeo, andrea ongi bizitze huen. Baño pardel samarra tokatzen bazen, harekin lan in behar izaten ztzienu. Da ordun izate hittuen komerik. Eta denetakoak tokatze hittuen. Batzuk txintxoak eta onak, bestek gortxeagoak eta alpertxeagoak. Denetatik izate hittuen ordun e. Batzuk politxeagoak, bestek zakarxeagoak, denetakoak. Hala, emakomek **bazeutezkenen** eskertuk eta alai senarra alde-aldekoa tokatzen bazitzioan.*

Mutila alde-aldekoa tokatuz gero, andrea ongi bizitzen zuan. Baina pardel samarra tokatzen bazen, harekin lan egin behar izaten zianan. Eta orduan izaten zitunan komediak. Eta denetakoak tokatzen zitunan. Batzuk txintxoak eta onak, besteak gogorxeagoak eta alferxeagoak, denetatik izaten zitunan orduan ere. Batzuk politxeagoak, besteak zakarxeagoak, denetakoak. Hala, emakumeak **bazeudekenan** eskertuak eta alai senarra alde-aldekoa tokatzen bazitzaian.

Testuingurua:

Etkez edo baserriz askotan aldatzen zen jendea garai batean, gehienak maizterrak izaten baitziren. Eta urtero berriitu behar zen jabearekin jarraipena, baina askotan segimendurako ziurtasunik gabe.

Adibidea:

*Maixterra errenta patzea nausingana yoan, da ez paldin bazioan deus esaten, pozik bueltatze huen etxea. Ta ordun beste urte beteako seuro huen biñipin, da bittarte hortan **bazeoken** trankil. Baño batzutan hara yoan, da uzteko esan nausik. Eta ordun bilatu in behar beste etxe bat.*

Maizterra errenta pagatzera nagusia-rengana joan, eta ez baldin bazioten deus esaten, pozik bueltatzen zuan etxera. Eta orduan beste urtebeterako seguru zuan behinik behin, eta bitarte horretan **bazegokeen** trankil. Baina batzuetan hara joan, eta uzteko esan nagusiak. Eta orduan bilatu egin behar beste etxe bat.

Testuingurua:

Nekazaritzako lanak aroetan egin behar direlako esaera bada, baina eguraldiak lagundu behar dio baserritarrari horretan. Hori azaldu dio baserritar batek herriko lagun bati.

Adibidea:

Aroatan in behar tziela gauzek nekazaritzen, baño egualdik e laundu in behar. Da launtzen tziotanen trankil bazeutezken baserritarrak, alorreko lanak itteko modue izaten huen ordun: lurre prestatu, te banabarra ta patata erin da. Baño giroa hinkili-hankala hasten bazen, akabo. Aroatan ittea nahittenahiezkoa baitzen, nahiz alorretako lanak, nahiz belatsoatakoak.

Aroetan egin behar zirela gauzak nekazaritzan, baina eguraldiak ere lagundu egin behar. Eta laguntzen zienean trankil **bazeudekeen** baserritarrak, alorreko lanak egiteko modua izaten zuan orduan: lurra prestatu eta banabarra eta patata erein eta. Baina giroa hinkili-hankala hasten bazen, akabo. Aroetan egitea nahi eta nahiezkoa baitzen, nahiz alorretako lanak, nahiz belardi-soroetakoak.

Testuingurua:

Migelek soldadu egon zeneko kontutxo bat azaltzen dio lagun bati.

Adibidea:

Ni soldadu negoala, ordenantza patu neuden, da brigadak eta haik esana bukatzen nunen, ordun baneoken lasai arren inorako kezkaik gabe, ta beste deuse in gabe. Mandatutan-da ibili in behar dezente, baño gañekoan espezial eondu nindduen ni Iruñen soldadu, guardik eta in gabe.

Ni soldadu nengoela, ordenantza paratu ninditean, eta brigadak eta haiek esana bukatzen nuenean, orduan **banengokean** lasai ederrean inorako kezkarik gabe, eta beste deus ere egin gabe. Mandatuetan-eta ibili egin behar dezente, baina gainerakoan espezial egon ninduan ni Iruñean soldadu, guardiarik eta egin gabe.

Testuingurua:

Giro onik izan gabe alorrean lanean aritu zireneko kontua esaten dio Ferminek Tomasi.

Adibidea:

Gu re eun hartan bageuntezken geldigeldik, lasai arren, alorrea yoan gabe; zergatiken kalte in behar gñeioan lurrei. Baño iraultzea yoan giñuzen, da urek ondoren dena izurratue utzi zien lurre. Ekaitzek yo zien da.

Gu ere egun hartan **bageundekean** geldi-geldirik, lasai ederrean, alorrera joan gabe; zeren eta kalte egin behar genioan lurrari. Baina iraultzera joan gintuan, eta urak ondoren dena izorratua utzi zian lurra. Ekaitzak jo zian eta.

Testuingurua:

Leitza herriak fabrika izatea eskertzekoa delako kontua aipatzen dio Migelek Fernandori.

Adibidea:

Leitzekoak e bai, tte ingurukoak e bai majin bat, bazeutezkek kontentu Leitzen fabrike in tzelako. Bittarten pobre asko baitzen hemen.

Leitzakoak ere bai, eta ingurukoak ere bai makina bat, **bazeudekek** kontent Leitza fabrika egin zelako. Bitartean pobre asko baitzen hemen.

c) Ahalera sintetikoa, alegiazkoa.

<p>Testuingurua: Neska batek beste bati azaltzen dio pandemia izan baino lehen lanera egunero joan behar izaten zuela Iruñera, eta gero berriz etxetik aritu zela. Eta orain ere batzuetan etxetik aritzen dela.</p>	
<p>Adibidea: <i>Aizan, neska. Pandemia izan baño lehen, ni Iruñera yoanez aitzen ninddunen lanen. Da ondoren etxetik aittu nan. Da uain e eun betzutan uzten tzeidenea etxetik, hara gabe. Baño beste batzuri berriz erabat uzten tzeionea. Ta nik e nahigo niken erabat ari etxetik. Baño etxetik aitzeko hori kendu dioanak e asko emen ditton, da ixillik baneoken ni re, horrenik e galdu gabe. Baño etzekiñet pa, ze esan. Da hortako kejatu in beharko inñet. Gañekoan ez tiñet kontseittuko.</i></p>	<p>Aizan, neska. Pandemia izan baino lehen, ni Iruñera joanez aritzen ninddunan lanean. Eta ondoren etxetik aritu naun. Eta orain ere egun batzuetan uzten zidaten etxetik, hara gabe. Baina beste batzuei berriz erabat uzten zioten. Eta nik ere nahiago niken erabat ari etxetik. Baina etxetik aritzeko hori kendu dietenak ere asko omen ditun, eta isillik banengoken ni ere, horrenik ere galdu gabe. Baina ez zekinat ba, zer esan. Eta horretarako kexatu egin beharko dinat. Gainerakoan ez dinat kontsegituko.</p>

<p>Testuingurua: Gizaseme batek beste bati azaltzen dio ez dakiela etxean zainduko ote duten, zahartu delako.</p>	
<p>Adibidea: <i>Etxen erazoko naueala yakin ezkeo, baneokek trankil. Earki bizi nak ni etxen erazoa. Baño batzutan somatzen baitittot kejaka etxekoak, ni naizela medio; launtzeko ta ibiltzeko uain ez bainaiz gauze. Ta zaharra etxetik atea ezkeo, kastigu latza baita.</i></p>	<p>Etxean zainduko nautela jakinez gero, banengokek trankil. Ederki bizi nauk ni etxean zaindua. Baina batzuetan sumatzen baititut kexaka etxekoak, ni naizela medio; laguntzeko eta ibiltzeko orain ez bainaiz gauza. Eta zaharra etxetik ateraz gero, zigor latza baita.</p>

Testuingurua:

Ahizpa batek beste bati adierazten dio ama zahar-etxean izatearekin kezkatua dagoela.

Adibidea:

–*Aizan, aizan. Gue ama re eon litteken ba etxen. Hark laundu zeigun ba guri hazitzen.*

–*Etzeon hoi ongi iñe amai ez launtzea. Gaizki iñe zeon. Etxen **baleoken** gue ama gaixoa. Ta kanpoan zeon.*

–*Igualako trankilleo eone huke itxen. Da gustorago. Hi ez al hitzeke hala eonen?*

–*Aizan, aizan. Gure ama ere egon liteken ba etxean. Hark lagundu zigun ba guri hazten.*

–*Ez zegon hori ongi egina amari ez laguntzea. Gaizki egina zegon. Etxean **balegoken** gure ama gaixoa. Eta kanpoan zegon.*

–*Igualako trankilago egonen luken etxean. Eta gusturago. Hi ez al hitzateke hala egonen?*

Testuingurua:

Gizonezko batek maisu bati esaten dio urrutira bidaltzen dituztela herriko maisuak lanera.

Adibidea:

*Hi maisue haiz. Eta Leitzen maisu eon beharko hukeena, «akasakristoa» bialdu habea. Ta zakurren epurditik ekarri zetie Leitzea. Zeatik itten due hori? Aldrebeskeri haundie dok hori! Bakoitze bere herrin ongi bizi littekek. Eta hi re **baihengoke** here herrin maisu.*

Hi irakaslea haiz. Eta Leitzan irakasle egon beharko hukeena, urrutira bidali haute. Eta txakurraren ipurditik ekarri ditiztek Leitзара. Zergatik egiten dute hori? Aldrebeskeria handia duk hori! Bakoitza bere herrian ongi bizi litekek. Eta hi ere **bahengoke** heure herrian maisu.

Testuingurua:

Langile batek beste bati esaten dio greba konturik ez esateko, isilik egoteko, eta egitekotan, hark egiteko.

Adibidea:

–*Aizak, **baiheoke** ixil-ixillik. Eta hik ez huke mintzatu beharrik, hi mintzaten ai haizen modun. Hi igual ez hitzeke hola ibilliko, baño zirikatzaillek ba baitittok. Eta huelga in nahi beek, in tzak heorrek.*

–*Aizak, **bahengoke** isil-isilik. Eta hik ez huke mintzatu beharrik, hi mintzaten ari haizen moduan. Hi igual ez hitzateke horrela ibiliko, baina zirikatzaileak ba baitittok. Eta huelga egin nahi baduk, egin ezak herorrek.*

Testuingurua:

Joxek esaten dio lagun bati anaiari analisiak ongi atera zaizkiola, nahiz eta zurruteroa izan.

Adibidea:

Baleokek kontentu anaie re, kolesterola ongi atea ezkeo medikutan, baño. Gaña horrek beste gauze at e bazeukak: txurrute izan ezkeo, konforme dok hori. Tte bee bururi kalte hortantxe itten tzeiok. Tokatzen etzakionak eaten tzetik eta.

Balegokek kontent anaia ere, kolesterola ongi ateraz gero medikutan baina. Gainera horrek beste gauza bat ere bazeukak. Txurruta izanez gero, konforme duk hori. Eta bere buruari kalte horretxetan egiten ziok. Tokatzen ez zaskionak edaten ditik eta.

Testuingurua:

Amona batek beste bati esaten dio pentsioa igo dietela eta pozik egon beharko luketela.

Adibidea:

–Gu re eon giñezken kontentu. Yornala goatu zeinmue ta.
 –Ta goatu diuen tokin bajatu baligue, ze izanen tzen hoi?
 –Hoi motxagoa izane huen. Baño ez baititutu gauzek momentun ongi pentsatzen. Da guk daukune hoi don, gauzek ongi pentsatzen ez dittulako.
 –Betire, **bageuntezken** kontentu.

–Gu ere egon gintezken kontent. Jornala goratu ziguten eta.
 –Eta goratu diguten tokian jaitsi baligute, zer izanen zen hori?
 –Hori motxagoa izanen zuan. Baina ez baititugu gauzak momentuan ongi pentsatzen. Eta guk daukaguna hori dun, gauzak ongi pentsatzen ez ditugulako.
 –Betiere, **bageundeken** kontent.

Testuingurua:

Emakume batek beste bati esaten dio agintariak asko kobratzen dutela, baina hala ere pobreei jornala igo dietela esaten aritzen direla, haiek zenbat kobratzen duten esan beharrean.

Adibidea:

–Haak ez tiñea esaten zenbat kobratzen duen beena. Bestena bai. Zenbat goatu duen da, yenderi zenbat patzen dioan da, horik esaten tzetñea.

–Baño berenik ez tiñea esaten. Guk hiruek baño gehio kobratzen diñea. Horren bajun ez giñezken eon behar.

–Horren paga bajoakin. De horik hala diela, **baleutezken** ixil-ixillik agintari horik.

–Denak faltsoak izate itton gaña.

–Haiek ez ditzen esaten zenbat kobratzen duten berena. Besteena bai. Zenbat goratu duten eta, jendeari zenbat pagatzen dioten eta, horiek esaten ditizten.

–Baina berenik ez ditzen esaten. Guk hirurok baino gehiago kobratzen ditzen.

–Horren baxuan ez gintezken egon behar. Horren paga baxuarekin. Eta horiek hala direla, **baleudeken** isil-isilik agintari horiek.

–Denak faltsuak izaten ditun gainera.

Testuingurua:

Lagun batek beste bati esaten dio pozik egon daitekeela familiako guziak irabazian direlako.

Adibidea:

Famillie dena bizkorra, denak lanen, denak irabazin, dde oso ongi zautea zuuk uain. Oso ongi hao hi uain, da millonak aorratzen ai zatea. Zertako kejatu behak? Hi re **baiheoke** kontentu horik denak hala diela.

Familia dena bizkorra, denak lanean, denak irabazian, eta oso ongi zaudete zuek orain. Oso ongi hago hi orain, eta milioiak aurrezten ari zarete. Zertarako kexatu behar duk? Hi ere **bahengoke** kontent horiek denak hala direla.

Testuingurua:

Lantokia Leitzan egin zutelako eskertu beharko lukete guziek Tomasek Fernandori esan dionez.

Adibidea:

*Hara, denak e **baleutezkek** ixil-ixillik eta kontentu gaña. Leitzen holako fabrike baten lantokie daukeelako baño, beti izaten baitie, 20etatik bat edo, okerra.*

Hara, denak e **baleudekek** isil-isilik eta kontent gainera. Leitzan horrelako fabrika batean lantokia daukatelako baina, beti izaten baitira, 20tatik bat edo, okerra.

Testuingurua:

Fabrikaren aurka jendea asaldatzen aritzen direnak ere isilik eta pozik egon beharko luketela dio Migelek. Eta baserritarrek ere eskertu behar dutela fabrika egin izana, haientzat ere mesedegarria baita.

Adibidea:

***Baleutezkek** horik e kontentu, baño ez tittok eotten, da gaña itten tzetie, beste guzik harrotu, te beste guzik izorratu. Ta beak nahi dittuenak in de... beste leku batea ta kitto. Aa, ta baserritarrak e **bageuntezkek** eskertuk fabrikakin, mesede baita. Gero herrin da haragie saltzeko ta.*

Baleudekek horiek ere kontent, baina ez dituk egoten, eta gainera egiten ditiztek, beste guziak harrotu, eta beste guziak izorratu. Eta berak nahi dituztenak egin eta igual beste leku batera eta kitto. Aa, eta baserritarrak ere **bageundekek** eskertuak fabrikarekin, mesede baita. Gero herrian eta haragia saltzeko eta.

2. eranskina

JOAN aditzaren ahalera sintetikoa erabiliz ahoz jasotako adibideak

a) Ahalera sintetikoa, orainaldia.

Testuingurua:

Neska batek beste bati esaten dio erosketak egitera goiz samar joan dela.

Adibidea:

–Mandatuta goiz samar etorri nan gaur baserritik. Eta alperrik neon hemen, da **baniken**, denda itxie baitao.

–Denda itxin sartzeik etzeon, lapurre ez bada.

–Baño yoaten banaiz, gero berriz etorri beharko diñet...

–Mandatutara goiz samar etorri naun gaur baserritik. Eta alferrik negon hemen, eta **banoaken**, denda itxia baitago.

–Denda itxian sartzerik ez zegon, lapurra ez bada.

–Baina joaten banaiz, gero berriz etorri beharko dinat...

Testuingurua:

Auzolana antolatzen. Gorritzaran auzoan, baserritar batzuk besteekin ari dira tratutan, adostu nahian zein eta nola joan Artxikонера baserriko bi zaharrei laguntzera, han gazterik ez, eta lan asko baitago.

Adibidea:

–Aizak, Pello. Auzolana zeok bihar Artxikonen. Baakik, hango zaharrak ez baitie gauze laneako. Etorriko al haiz hi launtzea?

–Bai, bai, etxen etzeuket holako lanik, eta **banikek** launtzea. Ta gue anaie Tomas e **bazikek**, ordu betzutan han aringatik e nahiko denboa zeok, gero re etxeko lanak itteko.

–Yakiñe, berak ez tittok laneako gauze, ta laundu in beharko zeigue. Eta zuuk, zer diozue?

–Ba, gu re **bagizkek**, bihar atsalden nahi bada. Baño gu atsalden yoanen gattok. Eguerdi arten badiu etxen e lana guk, eta etxeko lana itten dumen, atsalden yoanen gattok.

–Ta hi, Miel. hi re bai, ee. Baakik, hantxe aiko gattok gu lanen, da hi re **baihoake** bihar atsalden Artxikonea, nahi beek, denantzat e bai baitao lana han, belarren da ikullun da.

–Gaña, Pillipenak e ba emen **tzizkek**, horik eurre ekarriko emen tzeioa Artxikonekoari, atetaño gaña. Ta hortan e laundu in beharko zeigue.

–Aizak, Pello. Auzolana zegok bihar Artxikonen. Badakik, hango zaharrak ez baitira gauza lanerako. Etorriko al haiz hi laguntzera?

–Bai, bai, etxean ez zeukeat horrelako lanik, eta **banoakek** laguntzera. Eta gure anaia Tomas ere **bazoakek**, ordu batzuetan han ariagatik ere nahiko denbora zegok, gero ere etxeko lanak egiteko.

–Jakina, berak ez dituk lanerako gauza eta lagundu egin beharko zieagu. Eta zuek zer diozue?

–Ba, gu ere **bagoazkek** bihar arratsaldean, nahi bada. Baina gu arratsaldean joanen gaituk. Zuek zoazte eguerdi artean, eta gu arratsaldean joanen gaituk. Eguerdi artean badiagu etxean ere lana guk, eta etxeko lana egiten dugunean, arratsaldean gu joanen gaituk.

–Eta hi, Miel. hi ere bai, ee. Badakik, hantxe ariko gaituk gu lanean, eta hi ere **bahoake** bihar arratsaldean, nahi baduk, denentzat ere ba baitago lana Artxikonen, belarrean eta ukuiluan eta.

–Gainera, Pillipenak ere ba omen **zoazkek**, horiek egurra ekarriko omen zietek Artxikonekoei, atetaraino gainera. Eta horretan ere lagundu egin beharko zieagu.

Testuingurua:

Lan bila dabilen neska bati herriko fabrikara joateko aholkua ematen dio beste batek.

Adibidea:

*Aizan, Leitzeko fabriken lana badon, ba emen don, bai. Tte hi re **baihoake**, ta hartuko habea. Bai, bai, seizan. Da hartuko habea hi re, neskak e hartzen baitittue uain.*

Aizan, Leitzako fabrikan lana badun, ba omen dun, bai. Eta hi ere **bahoake**, eta hartuko haute. Bai, bai, segi ezan. Eta hartuko haute hi ere, neskak ere hartzen baitituzte orain.

Testuingurua:

Mariaren anaia gaixotu zen eta ospitalera eraman zuten. Gaur alta eman diotenez gero, etxera itzul daiteke.

Adibidea:

*Gue anaie gaizkittu in huen, da gaizki zegoala ta ingresatu in tziñenen lehengo asten. Baño, gaur alta eman tzeionea hospitalen, da uain **baziken** etxea. Pozik yoanen don norbatte bille yoan ezkeru. Neumonia pasatuxea daukela, ta alta eman tzeionea ta.*

Gure anaia gaizkitu egin zunan, eta gaizki zegoela eta ingresatu egin zitenan lehengo astean. Baina gaur alta eman zioten hospitalean, eta orain **bazoaken** etxera. Pozik joanen dun norbait bila joanez gero. Pneumonia pasatuxea daukala eta alta eman zioten eta.

Testuingurua:

Baratzeko lanak amaiturik, atsedenerako tartea dute bi emakumek.

Adibidea:

*Aizan, hemengo lanak bukatu zetiñu te alperrik geuden hemen batzan bero honekin. De **bagizken**. Tira, guazen itzalen yartzea. Atxoon in behaiñu uain pixkoaten.*

Aizan, hemengo lanak bukatu ditinagu eta alferrik gauden hemen baratzean bero honekin. Eta **bagoazken**. Tira, goazen itzalean jartzera. Atsedena hartu behar dinagu orain pixka batean.

<p>Testuingurua: Garai batean emakumea ez zitekeen tabernetara joan, gaur egun ez bezala.</p>	
<p>Adibidea: <i>Uain emakumek bazizken tabernaa, baño gue denboan ez huen hola, emakumeik ez huen yoaten tabernaa. Ta bat pakarrik e ez giñuzenen yoaten. Ze usten ba? Ez, ez. Alde batetik diruik ez, eta bestetik yoateik ez. Lotsa!</i></p>	<p>Orain emakumeak bazoazken tabernara, baina gure denboran ez zunan horrela, emakumerik ez zunan joaten tabernara. Eta bat bakarrik ere ez gintunan joaten. Zer uste dun ba? Ez, ez. Alde batetik, dirurik ez, eta, bestetik, joaterik ez. Lotsa!</p>

b) Ahalera sintetikoa, iraganaldia.

<p>Testuingurua: Neska baserritar batek gaztetan kanpora joan nahi lanera, baina gurasoek ez zioten utzi.</p>	
<p>Adibidea: <i>Gaztetan bizkorra ta osasunezue ninddunen ni, te banikenen noanahi lanea. Baño ez ninddunen yoan. Itxen behar bainindduen gurasoak. Bai, gurasoak behar neonen, da gaña etzeidenen uzten kanpora yoaten irabazire. Mutilleri bai te niri ez.</i></p>	<p>Gaztetan bizkorra eta osasuntsua nindunan ni, eta nindoakenan noranahi lanera. Baina ez nindunan joan. Etxean behar baininduten gurasoek. Bai, gurasoek behar ninditenan, eta gainera ez zidatenan uzten kanpora joaten irabazira. Mutilei bai eta niri ez.</p>

Testuingurua:

Anai-arrebak hizketan gerra hasieraz, haien bi anaia joan zitezkeela Ameriketara. Baina bat ez zen joan, aitaren nahia betez, eta hil egin zuten.

Adibidea:

–Gerra heldu zela ta, Manuel e **bazikenen** Ameriketa osabangana, Joxekin baten. Baño attek etziñenen nahi. Tte nola baitzen ona, bihotz onekoa, hure geldittu in huen. Da gero, gerran hil tzienen. Ez han da ez hemen geldittu hittuen gurasoak.

–Bai, bai, hure re **baziken**. Joxe zegoan tokire yoan balitz e, bizik ateako huen seuro aski. Baño hemen geldittu huen hure, ta gero gerra hasi, tte okerra etorri zitziotan gizaxoari. Lehenbiziko ataken hil zien.

–Gerra heldu zela eta, Manuel ere **zihoakenan** Ameriketara osabaren-gana, Joxerekin batean. Baina aitak ez zinan nahi. Eta nola baitzen ona, bihotz onekoa, hura gelditu egin zunan. Eta gero, gerran hil zitenan. Ez han eta ez hemen gelditu zitunan gurasoak.

–Bai, bai, hura ere **zihoakean**. Joxe zegoen tokira joan balitz ere, bizirik aterako zuan seguru aski. Baina hemen gelditu zuan hura, eta gero gerra hasi, eta okerra etorri zitzaioan gizagaixoari. Lehendabiziko atakean hil zitean.

Testuingurua:

Arkupeak zaharren elkartekoak baserriz baserri ibiltzen ziren adindun jendea gonbidatzen, bidaietan parte har zezan.

Adibidea:

–Arkupekoak gu gonbitzen geundenen beste guzik bezala, ta yoan giñezkenen Benidorre ta. Baño gue gizonak etziñenen yoan nahi izaten. Bai, gu re **bagiñezkenen**. Hoixe bai. Baño ez giñuzenen yoaten horregatik, gizonak etzulako etxetik kanpo lo in nahi izaten. Gaña, nahi zuen guzik **bazizkenen**.

–Bai. Tte asko yoate hittumen gaña. Ta gue auzokoak e ordun **bazizkenen**, da ez hittuen yoaten.

–Da uain?

–Uain yoateko abildadeik ez tuenen, hemen geldittu behar. Uain hemen eon beharra zeukenea.

–Arkupekoek (zaharren elkarte) gu gonbidatzen gintuztenan beste guziak bezala, eta joan gintezkenan Benidorma eta. Baina gure gizonak ez zinan joan nahi izaten. Bai, gu ere **bagindoazkenan**. Horixe bai. Baina ez gintunan joaten horregatik, gizonak ez zuelako etxetik kanpo lo egin nahi izaten. Gainera, nahi zuten guziak **bazihozkenan**.

–Bai. Eta asko joaten zitunan gainera. Eta gure auzokoak ere ordun **bazihozkenan**, eta ez zitunan joaten.

–Eta orain?

–Orain joateko abildaderik ez dutenean, hemen gelditu behar. Orain hemen egon beharra zeukaten.

Testuingurua:

Baserritar bi herriko fabrikaren hasieraz ari dira, haiek ere joan zitezkeela lan bila baina aldaketa handia zen.

Adibidea:

*Fabrike martxan patu zuenen, hi re **bahiken** hara lanea, irabazire hi re. Baño, ez hitzen yoan. Baserrin dde bordan bahuen nahiko lana. Ta gurasoak ez nahi fabrikeko martxara yoatea.*

Fabrika martxan paratu zutenean, hi ere **hindoaken** hara lanera, irabazira hi ere. Baina, ez hintzen joan. Baserrian eta bordan bahuen nahiko lana. Eta gurasoek ez nahi fabrikako martxara joatea.

Testuingurua:

Familia batean sagardotegira joateko festa antolatu zuten, eta etxeko aita eta osaba zaharra ere joatea nahi, baina haiek nahiago etxean.

Adibidea:

*Etxekoak saardotegire yoan ziela ta, gu re **bagiñezken**. Nahi izandu bagiño... Alabak hortxe: «Aaa, atetaño kotxen yoan behar, da zengatik en etzatea yoaten zuuk e?» Baño ez, ez giñuzen yoan. Gu, anaie eta bik, etxen lasai earren.*

Etxekoak sagardotegira joan zirela eta, gu ere **bagindoazkean**. Nahi izan bagenu... Alabak hortxe: «Aaa, ateetaraino kotxean joan behar, eta zergatik ez zarete joaten zuek ere?» Baina ez, ez gintuan joan. Gu, anaia eta biok, etxean lasai ederrean.

Testuingurua:

Tomasek azaltzen du Benidormera oporretan herritar asko joan direla aurtan, eta bera ere joan zitezkeela alabarekin.

Adibidea:

*Herrikoak asko yoan hittuen lehengoan Benidorre bakazioata. Ta bai, bai, ni re **baniken** alaba batekin eo, esan tzeidean. Baño ez, ez baitauket nik hortako gogorik. Ni enak hor ibiltzekoa izandu nee denboan. Sasobea nunen e ez nindduen ibiltzen. Da launtzeik gabe uain enak ibiltzeko gauze.*

Herrikoak asko joan zituan lehengoan Benidorma oporretara. Eta bai, bai, ni ere **nindoakean** alaba batekin edo, esan zidatean. Baina ez, ez baitaukat nik horretarako gogorik. Ni ez nauk hor ibiltzekoa izan nere denboran. Sasoia nuenean ere ez nindduan ibiltzen. Eta laguntzarik gabe orain ez nauk ibiltzeko gauza.

Testuingurua:

Oraingo zahar horien gurasoak ere izaten omen zuten Arkupekoekin bidaiatzeko aukera, haien aurretik.

Adibidea:

*Lehenao re, uain dela urte atzuk, gue gurasoak e **bazizken** Arkupekoakin eta kanpoa. Baño haik e gogorik ez, gonbitu re itten tzetien baño. Eusebio etortze huen etxea esatea. Ta gu ordun harrittute eotten giñuzen etzielako yoaten.*

Lehenago ere, orain dela urte batzuk, gure gurasoak ere **bazihoazkean** Arkupekoekin eta kanpora. Baina haiek ere gogorik ez, gonbitu ere egiten zitiztean baina. Eusebio etortzen zuan etxera esatera. Eta gu orduan harrituta egoten gintuan ez zirelako joaten.

Testuingurua:

Baserritarrak eskolara joateko larri ibiltzen ziren. Herritarrak, berriz, errazago.

Adibidea:

*Herrin bizi zienak **bazizken** eunero eskola. Beste lanik etzien eta. Ta eunero eskola. Baño baserritarrak lan in behar, behien aurren zela ta, lanen ai behar. Da ezin joan gu eskola. Nola ba?*

Herrian bizi zirenak **bazihoazkean** egunero eskolara. Beste lanik ez zitean eta. Eta egunero eskolara. Baina baserritarrok lan egin behar, behien aurrean zela eta, lanean ari behar. Eta ezin joan gu eskolara. Nola ba?

c) Ahalera sintetikoa, alegiazkoa.

<p>Testuingurua: Osaba zahar-etxean duen neska bat lagun batekin horri buruz hizketan.</p>	
<p>Adibidea:</p>	
<p>–<i>Baakin, osaba asiloan zeukunu. Ta ni re baniken ekustea. Bai, ni re baniken, aldin-aldin, hillen behin benik. Baño enan yoaten. Bazekiñet gaizki ñe dagoala. Baño enan bakararra.</i></p> <p>–<i>Gu etxeoak, denak e bagiñezken hara txandan-txandan harengana. Beti bakarrik han gizarajoa eon gabe.</i></p> <p>–<i>Baño ez. Etxen ez erazotzematik hara eaman, da kitto.</i></p> <p>–<i>Lehengo esaera baita: «besten miñe, begin lo». Ta guk e hori in diñu osabakin.</i></p>	<p>–Badakin, osaba zahar-etxean zeukana. Eta ni ere nindoaken ikustera. Bai, ni ere nindoaken, aldian-aldian, hilean behin bederen. Baina ez naun joaten. Bazekinat gaizki egina dagoela. Baina ez naun bakararra.</p> <p>–Gu etxeoak, denak ere gindoazken hara txandan-txandan harengana. Beti bakarrik han gizarajoa egon gabe.</p> <p>–Baina ez. Etxean ez erazotzeagatik hara eraman eta kito.</p> <p>–Lehengo esaera baita: «Bestearen mina, begian lo». Eta guk ere hori egin dinagu osabarekin.</p>

<p>Testuingurua: Jubilatu guziek dute aukera bidaietan ibiltzeko, baina Mirenen amak ez du nahi.</p>	
<p>Adibidea:</p>	
<p><i>Arkupekoak denari ematten tzeionea gonbittea. Ta gue ama re baliken, nahi belo. Beño ez ton yoaten, ez tulako nahi. Ez telako hartakoa, lehen ez, eta uain sasobea yoanda gutxio. Baño baliken gurea re, bestek bezela, igual-igual.</i></p>	<p>Arkupekoek denei ematen zieten gonbidapena. Eta gure ama ere lihoaken, nahi balu. Baina ez dun joaten, ez duelako nahi. Ez delako hartakoa, lehen ez, eta orain sasoi joanda gutxiago. Baina balihoaken gurea ere, besteak bezala, berdin-berdin.</p>

Testuingurua:

Bi lagun hizketan ari dira haien auzoko bat ingresatu dutela eta inor ez zaiola bisitatzeraz joaten.

Adibidea:

–Auzokoa, Joxe, ingresatue zeok, maxkalen baitzebillen aspalditxo. Ta gu re **bagiñezkek** hure ekustea. Bisitatzea ta rato bat pasatzea. Eskertu iñen likek auzokoak yoatea.

–Ta hi re, zer? Hi re **bahike** hure ekustea, lehen askotan joaten hitzen harengana mesedek eta eskatzea. Oso laumek izandu zatea ta beti.

–Auzokoa, Joxe, ingresatua zegok, maskalean (gaizki samar edo) baitzebillen aspalditxo. Eta gu ere **gindoazkek** hura ikustera. Bisitatzeraz eta tarte bat pasatzeraz. Eskertu eginen likek, auzokoak joatea.

–Eta hi ere, zer? Hi ere **hindoake** hura ikustera, lehen askotan joaten hintzen harengana mesedek eta eskatzeraz. Oso lagunak izan zarete eta beti.

Testuingurua:

Bi emakume adindun hizketan gaur egun emakumeak zerbait hartzeraz joateaz.

Adibidea:

–Aizan, aizan. Karmen da hoik yoateitton, da gu re **bagiñezken**, baño ez katton joaten, ohiturik ez tiñu eta.

–Horreatik ez katton joaten. Nola hasiko ga uain? Sekulen ez katton tabernatan eta kafeteritan da ibilli.

–Aizan, aizan. Karmen eta horiek joaten ditun, eta gu ere **gindoazken**, baina ez gaitun joaten, ohiturarik ez dinagu eta.

–Horreatik ez gaitun joaten. Nola hasiko gara orain? Sekulan ez gaitun tabernetan eta kafeterietan eta ibili.

Testuingurua:

Emakume batek esaten du familia batean gurasoak zahar-etxean dauzkatela, eta ez direla haiengana joaten.

Adibidea:

Beste hoik e guraso zaharrak asiloan zeuzkenea, ta joan litezken ratoat pasatzea, astero. Baño ez titton joaten, da haak hantxe eotteitton, triste-triste, gaixoak! **Balizken** baño... seme-alaban erretratoai beire jarri, tte nearrez. Eta haingana **balizken** horik e. Baño, bai zea. Gaztetan hankak arin, eta ez pentsatzen. Da gero zahartzen ganen, hankak pisuk...

Beste horiek ere guraso zaharrak asiloan **zeuzkaten**, eta joan litezken tarte bat pasatzeraz, astero. Baina ez ditun joaten, eta haiek hantxe egoten ditun, triste-triste, gaixoak! **Balihoazken** baina... seme-alaben erretratuei begira jarri eta negarrez. Eta haiengana **balihoazken** horiek ere. Baina, bai zera. Gaztetan hankak arin, eta ez pentsatzen. Eta gero zahartzen garenean, hankak pisuak...

Testuingurua:

Familia bateko anaiak hizketan ama zahar-etxean daukatela eta ez direla harengana joaten.

Adibidea:

–Ni re **banikek** ama bisitatzea, baño enak yoaten bate. Eta guetzat gauze tristea dok, eta kontzientzi karga gaña.

–Bai, baño ez gattok yoaten, halare. Behin eaman ezkeo, utzi, tte hantxe eonen dok, eta utzi tte kitto.

–Ta, ni ezeze, hi re **bahike** hure ekustea gehixeo. Txandan-txandan eo denak e gehio yoan giñezkenak ez gattok yoaten...

–Pentsatu! Beño gauze tristeak hori, han dagoanantzat e. Etxen famillie izan, da inor ez yoaten ikustea. Behin eaman ezkeo: baaa, kendu diu trabatik eta fuera. Utzi itten baita.

–Ta bestea re, Gergorio, hori re **balikek** gehixeo. Beño hara eamanda, han utzie zeok eta, ba, han kuidatuko die, ta ez kattok inor e yoaten.

–Ni ere **banindoakek** ama bisitatzera, baina ez nauk joaten batere. Eta guretzat gauza tristea duk eta kontzientzia karga gainera.

–Bai, baina ez gaituk joaten, hala ere. Behin eramanez gero utzi, eta hantxe egonen duk, eta utzi eta kito.

–Eta, ni ezeze, hi ere **hindoake** hura ikustera gehixeago. Txandan-txandan edo denak ere gehiago joan gintezkenak ez gaituk joaten...

–Pentsatu! Baina gauza tristea duk hori, han dagoenarentzat ere. Etxean famillia izan, eta inor ez joaten ikustera. Behin eramanez gero: Baaa, kendu diagu trabatik eta fuera. Utzi egiten baita.

–Eta bestea ere, Gregorio, hori ere **lihoakek** gehixeago. Baina hara eramanda, han utzia zegok eta, ba, han zainduko ditek, eta ez gaituk inor ere joaten.

Testuingurua:

Gizon batek azaltzen du haren gurasoak orain ez direla baserritik herrira joaten, ezta ostiraleko azokara ere.

Adibidea:

*Gue gurasoak uain ez titok herrira joaten medikutea ez bada. Baño **balizkek** beste asko joaten dien bezala. Haik baño zaharragoak eta okerrago daudenak e ekusten tzetiu ostieletan ferin. Da esan e itten tzeiue bestek nola joaten dien, da joateko hillen behin benik. Beño ez. Ez emen die gogorik. Eta ongina etxen eotten diela.*

Gure gurasoak orain ez dituk herrira joaten medikutara ez bada, baina **lihoazkek** beste asko joaten diren bezala. Haiek baina zaharragoak eta okerrago daudenak ere ikusten ditiagu ostiraletan ferian. Eta esan ere egiten zieagu besteak nola joaten diren, eta joateko hilean behin bederen. Baina ez. Ez omen ditek gogorik. Eta ongien etxean egoten direla.

3. eranskina

IBILI aditzaren ahalera sintetikoa erabiliz ahoz jasotako adibideak

a) Ahalera sintetikoa, orainaldia.

Testuingurua:

Bi emakume hizketan Leitzan mendian ibiltzea onddo bila libre dela eta.

Adibidea:

–Aizan, guri esan tzeigunue hemen ontoatan ba emen dabiltzetekela kanpokoak e. Egie al da?

–Bai, bai, hemen eozin dela re **bazebilken**, da nahi aña bildu.

–Horra! Ordun neone re **banebilken**, da ibilli in behaiñet. Amorratue bainaiz ontoatan.

–Eta zeatik ez, pa? Hi re **baihabilke**. Yakiñe zeon hori.

–Aizan, guri esan ziguten hemen onddoetan ba omen dabilzkeela kanpokoak ere. Egia al da?

–Bai, bai, hemen edozein dela ere **bazebilken**, eta nahi adina bildu.

–Horra! Orduan ni neroni ere **banabilken**, eta ibili egin behar dinat. Amorratua bainaiz onddoetan.

–Eta zergatik ez, ba? Hi ere **bahabilke**. Jakina zagon hori.

Testuingurua:

Bi aitona elkarrekin kontutan oinez normal ibiltzeko laguntza behar dutela eta.

Adibidea:

Hi, ni deus gabe ibiltzeko enak gauze, baño eskutako zeakin, taka-taka honekin **banebilkek**. Eta pozik honekin ibilli nattekenen e. Ta gue anaie re uain **bazebilkek**, makulukin, baño uain **bazebilkek**, biñipin. Operatu huen berriz kaderatik, eta uain hobeki zeok. Bai, bai, **bagabiltzetekek** eta nonbait hor, gauze gan arten ibilli beharra zeuku. Kosta ahala kosta ibilli. Ahal den bezela, beño ibilli. Ta hi zer? Sillen hola yarritte. Hi re **baihabilke**, makulutxo bat hartute. Batekin ez baihaiz kapaz, biekin ibilli haiteke. Bai gizona. Hi bizkorra haiz!

Hi, ni deus gabe ibiltzeko ez nauk gauza, baina eskuetako zerarekin, taka-taka honekin **banabilkek**. Eta pozik honekin ibili naitekeenean ere. Eta gure anaia ere orain **bazebilkek**, makuluekin, baina orain **bazebilkek**, behinik behin. Operatu zuan berriz kaderatik, eta orain hobeki zagok. Bai, bai, **bagabilzkek**, eta nonbait hor, gauza garen artean ibili beharra zeukagu. Kosta ahala kosta ibili. Ahal den bezala, baina ibili. Eta hi zer? Aulkian horrela jarrita. Hi ere **bahabilke**, makulutxo bat hartuta. Batekin ez bahaiz kapaz, birekin ibil haiteke. Bai gizona. Hi bizkorra haiz!

Testuingurua:

Neska batzuk hizketan dantzan (balsean mutilekin) ibiltzea galarazia edo libre ote den.

Adibidea:

–Aizan, hemen, Gorritin, **bagabilztzeteke**n dantzan plazan. Zeñek galazi behar diu? Hemen libre don, da neskak nahiz motillek **bazebiltzeteke**n.

–Bai zea! Nola ba? Leitzen baltsa galazie zeon da!

–Baietz pa, neska, hemen bai. Ta hi re **baihabilke**, Gorritin libre baita baltsa.

–Bai, ta apezak ikasten badue, zer?

–Aizan, hemen, Gorritin, **bagabilzken** dantzan plazan. Zeinek galarazi behar digu? Hemen libre dun, eta neskak nahiz mutilak **bazebilzkeen**.

–Bai zea! Nola ba? Leitzan baltsa galarazia zagon eta!

–Baietz ba, neska, hemen bai. Eta hi ere **bahabilke**, Gorritin libre baita baltsa.

–Bai, eta apaizek ikasten badute, zer?

Testuingurua:

Elbarriek ere gidabaimenik gabeko autoan ibiltzeko aukera dutela aipatzen du gizonezko batek.

Adibidea:

Uain autoan, «tatatatata», elbarriek e **bazebiltzetekek** auto tiki horitan. Uain, karrera generalen ez emen tzitezkek ibilli. Esan hala itten die. Nek etzekit deuse, beño gañekoan hemen ingurun badabiltzetekeela aittu dit nik.

Orain autoan, *tatatatata*, elbarriak ere **bazebilzkek** auto txiki horietan. Orain, errepide nagusian ez omen zitezkek ibili. Esan hala egiten ditek. Nik ez zakiat deus ere, baina gainerakoan hemen inguruan badabilzkeela aditu diat nik.

b) Ahalera sintetikoa, iraganaldia.

Testuingurua:

Neska batek beste bati esaten dio festetan etxean gelditu zela parrandara joan gabe.

Adibidea:

Pestak hittuen da anaiek in tzuen bezela, ni re, eun hartan, parrandan **banebilkenen**. Herrire yoan ninddekenen, baño eneukenen gogorik yoateko. Ta itxen geldittu ninddunen.

Festak zitunan eta anaiek egin zuten bezala, ni ere, egun hartan, parrandan **banebilkenan**. Herrira joan nintzenen, baina ez neukanan gogorik joateko. Eta etxean gelditu nindunan.

Testuingurua:

Gizon batek lagun bati kontatzen dio behin bakarra egin duela gaupasa.

Adibidea:

*Gaztetan e ez nindduen herrire yoaten parranda. Sekulen gaupasa bat in nien: argimeza entzun, da etxea. Ta handik borda. Maizago re **banebilken** ni re, baño etzitzeiden gustatzen parranda. Etxetik ateatzeko ez nien gogoik izaten. Ni enak hortakoa.*

Gaztetan ere ez ninduan herrira joaten parrandara. Sekulan gaupasa bat egin nian: argi-meza entzun, eta etxera. Eta handik bordara. Maizago ere **banebilkeen** ni ere, baina ez zitzaidan gustatzen parranda. Etxetik ateratzeko ez nian gogorik izaten. Ni ez nauk horretakoa.

Testuingurua:

Neska batek beste bati esaten dio garai batean gazte guztiak edo gehienak dantzan ibiltzen zirela herriko plazan igandeetan eta galdetzen dio ea bera zergatik ez zen ibiltzen.

Adibidea:

*Hi re **baihebilken** guekin dantzan asteburutan, auzoko neskakin baten baño. Zeatik ez hitzen etortzen? Gu pobrek giñelako? Hi re ez hitzen ba aberatsa! Ta gue auzoko mutill hure re **bazebilkenen** neska tarten. Baño lotsatu itten emen hunen. Da ez huen dantzatzen. Da ez huen etortzen. Baño ez huen bakarrik yarritte bitxo politte! Bakarrik baldin bazen, okerrena.*

Hi ere **bahebilkeen** gurekin dantzan asteburuetan, auzoko neskekin batean baina. Zergatik ez hintzen etortzen? Gu pobreak ginelako? Hi ere ez hintzen ba aberatsa! Eta gure auzoko mutil hura ere **bazebilkenen** neska tartean. Baina lotsatu egiten omen zunan. Eta ez zunan dantzatzen. Eta ez zunan etortzen. Baina ez zunan bakarrik jarrita bitxo polita! Bakarrik baldin bazen, okerrena.

Testuingurua:

Arkupeak elkarteak antolatutako jubilatuentzako bidaiak irekiak zirela guzientzat aipatzen dio gizaseme batek beste bati.

Adibidea:

*Arkupeko beajetara denak gonbitzen giñeuden. Da nahi zuen guzik **bazizken** herritik kanpoa eun pasa ta. Ta hi re **baihebilken**, nahi izan baiho, bestekin baten, beño ez hitzen ibiltzen.*

Arkupeak elkarteak bidaietara denak gonbidazen gintuztean. Eta nahi zuten guziak **bazikoazkeen** herritik kanpora egun pasa eta. Eta hi ere **bahebilkeen**, nahi izan bahu, besteekin batean, baina ez hintzen ibiltzen.

Testuingurua:

Neska batek azaltzen du baltsean dantzan ibiltzea Leitzan galarazia zegoela, beste herrietan ez bezala.

Adibidea:

*Gu Leitzen ez kiñezkenen dantzan ibilli. Bueno, dantzan **bagiñebiltzetekenen**, jotan-da bai, beño baltsen ez. Eta guk ez kiñenen baltsen ikasteik izandu. Ta gero kanpo-herrire yoaten giñenen, ordun izate hittuen komedik. Yakin ez, eta ibilli nahi. Inguruko herri horitan denetan **bazebiltzetekenen**, da ibiltze hittuen. Da erdi-erdin Leitze bakarra, baltsik etzuna. Denetan ibiltze hittuen, beño gu ez. Guk Leitzen ez giñenen ibiltzeik.*

Gu Leitzan ez gintezkenen dantzan ibili. Bueno, dantzan **bagenbilzkenan**, jotan-eta bai, baina baltsean ez. Eta guk ez ginenan baltsean ikasterik izan. Eta gero kanpo-herrira joaten ginenean, orduan izaten zitunan komeriak. Jakin ez, eta ibili nahi. Inguruko herri horietan denetan **bazebilzkenan**, eta ibiltzen zitunan. Eta erdi-erdian Leitza bakarra, baltsik ez zuena. Denetan ibiltzen zitunan, baina gu ez. Guk Leitzan ez ginenan ibiltzerik.

Testuingurua:

Aitona batek azaltzen du mutil batzuk lotsagatik ez zirela dantzan ibiltzen.

Adibidea:

Mutil haik e **bazebiltzeteken** plazan dantzan, beño ez hittuen atrebitzen; zekatiken eo lotsatu itte hittuen eo nik etzekit. Gu ibiltzen giñuzen Goikobordako Anita zena ta, denak elkarrekin dantzan. Yo eta sue! Leitzen neskek inori ez baitzioan ezetzik esaten. Eozin zela re **bazebilken** lasai earren.

Mutil haiek ere **bazebilzketen** plazan dantzan, baina ez zituan atrebitzen; zeren eta lotsatu egiten zituan edo nik ez zekiat. Gu ibiltzen gintuan Goikobordako Anita zena eta, denak elkarrekin dantzan. Jo eta sua! Leitzan neskek inori ez baitzioten ezetzik esaten. Edozein zela ere **bazebilken** lasai ederrean.

c) *Ahalera sintetikoa*, alegiazkoa.

Testuingurua:

Kafeterietara joateko ohiturarik ez duela esaten du emakume batek.

Adibidea:

Ni re **banebilken**, beste asko ibiltzen dien bezela, erabat kafeteritan da kanpoan. Baño neri hori etzitzien gustatzen, da horreatik enan ibiltzen. Baño gañekoan, nahi izan ezkeo betire, **banebilken** ni re kanpoan gehio, ibiltzen naizena baño. Ez nahi, orden.

Ni re **banebilken**, beste asko ibiltzen diren bezala, erabat kafeterietan eta kanpoan. Baina niri hori ez zaidan gustatzen, eta horregatik ez naun ibiltzen. Baina gainerakoan, nahi izanez gero betiere, **banebilken** ni ere kanpoan gehiago, ibiltzen naizena baino. Ez nahi, orde.

Testuingurua:

Mutil batek esaten du gutxi ibiltzen dela tabernan diru asko behar delako.

Adibidea:

Ni re banebilkek horikin baten tabernan, baño enak atrebitzzen: zergatiken, poltsa re behar dik hor. Eskue sartu poltsan, da dirue baldin badao, bien; da ez baldin badao, ze in behar do? Berriz e hutsik atea. Ez. Hortako behar dik dirue. Eta diruik ez pado, etxen eonen dok. Eta dirue dulako, taberna. Baño, ni enak hortakoa izandu behin e.

Ni ere **banebilkek** horiekin batean tabernan, baina ez nauk ausartzen: zeren eta poltsa ere behar dik eta hor. Eskua sartu poltsan, eta dirua baldin badago, bien; eta ez baldin badago, zer egin behar du? Berriz ere hutsik atera. Ez. Horretarako behar dik dirua. Eta dirurik ez badu, etxean egonen duk. Eta dirua duelako, tabernara. Baina, ni ez nauk horretakoa izan behin ere.

Testuingurua:

Emakume batek beste bati esaten dio Benidorma joan litekeela arazorik gabe.

Adibidea:

Hi re baihebilke neska. Ez haiz yoaten, beño ez tin inporta. Ta nahi baldin baan, Benidorre yoateko gogoa badauken, yoan hatteke. Gehio re yoateitton. Arkupetik eta yoate itton Benidorre, ta Iruñetik agentzittik e bai. Nonahi tokatze itton ezaunek, eta, neska, yoan hai. Ez haillela eon, yoan gabe.

Hi ere **baihenbilke**, neska. Ez haiz joaten, baina ez din inporta. Eta nahi baldin badun, Benidorma joateko gogoa badauken, joan haiteke, gehiago ere joaten ditun. Arkupetik eta joaten ditun Benidorma, eta Iruñetik agentziatik ere bai. Nonahi tokatzen ditun ezagunak, eta, neska, joan hadi. Ez hadila egon, joan gabe.

Testuingurua:

Gizon batek beste bati adierazten dio badakiela zergatik gelditzen den tabernara joan gabe.

Adibidea:

Bai, hi re baihebilke, beño ez haiz ibiltzen. Etzekit nik zeatiken ez haizen ibiltzen. Bueno, bai, nik pentsatzen dit zengatik ez haizen ibiltzen: dirue ez gastatzeatik. Yakiñe zeok pa! Etxen halako famillie, ta hik tabernan nahikoa gastatzen baak, etxen ze?

Bai, hi ere **baihebilke**, baina ez haiz ibiltzen. Ez zekiat nik zergatik ez haizen ibiltzen. Beno, bai, nik pentsatzen diat zergatik ez haizen ibiltzen: dirua ez gastatzeagatik. Jakina zegok ba! Etxean halako famillia, eta hik tabernan nahikoa gastatzen baduk, etxean zer?

Testuingurua:

Zahar batek esaten du oinez ibiltzea ona dela eta ezagutzen duela auzoko bat hori egiten ez duena.

Adibidea:

Oñez ibiltzea onan, odolak eta denak zirkulatzeko. Ta silladeruedasetan yarriko da, ba? Autoatan ezin sartuz eta ezin atez. Zertako? Muittu in behain. Hoi re balebilken, beño ez ton ibiltzen. Eseritte hobeki eotten dela konturatu in don. Beño hoi ez ton aski. Etzeon ongi iñe. Saiatu in behar din. Saia, biñipin!

Oinez ibiltzea ona dun, odolak eta denak zirkulatzeko. Eta aulkidun-gurpilean jarriko da, ba? Autoetan ezin sartuz eta, ezin ateraz. Zertarako? Mugitu egin behar din. Hori ere **balebilken**, baina ez dun ibiltzen. Eserita hobeki egoten dela konturatu egin dun. Baina hori ez dun aski. Ez zagon ongi egina. Saiatu egin behar din. Saia, behinik behin!

Testuingurua:

Gizon batek aipatzen du tabernetan ibilita ez dela gauza onik sortzen.

Adibidea:

Hure re balebilkek tabernan. Beño denak ez tiu igual pentsatzen. Da hark igual pentsatuko dik: «Ba, ni hola ibillite, ze heldu da hemen? Oker haundie helduk hemen.» Tabernatik etzeok negozioik sekulen. Tabernak berek behar tzetik.

Hura ere **balebilkek** tabernan. Baina denek ez diagu berdin pentsatzen. Eta hark igual pentsatuko dik: «Ba, ni honela ibilita, zer heldu da hemen? Oker haundia heldu duk hemen.» Tabernatik ez zegok negozioirik sekulan. Tabernak bereak behar ditik.

Testuingurua:

Emakume batek esaten du herritik kanpora joateko gogorik ez duela izaten.

Adibidea:

Gu re **bagiñebiltzeteken**, firirin-fararan, maizxeo Tolosa eo Iruñea eo Donostire. Gaztetan ez kiñenen yoateik izaten, diruik ez giñulako. Ta uain zahartute, gogoik ez, eo gauze ez.

Gu ere **bagenbilzken**, firirin-fararan, maizexago Tolosara edo Iruñera edo Donostiara. Gaztetan ez ginenan joaterik izaten, dirurik ez genuelako. Eta orain zahartuta, gogorik ez, edo gauza ez.

Testuingurua:

Gizon batek aipatzen du parrandak ez dakarrela onik.

Adibidea:

Gu re **bagiñebiltzetekek** hola, firirin-fararan! Baño etzeok hola ibiltzeik. Hola ibillitte etzeok gauz onik. Eta gizonak in behar dik pentsatu: «Nik e izandu zetit proportzioak hara ta honea ibiltzeko. Beño ez, ez, ez. Ni ez.»

Gu ere **bagenbilzkek** horrela, firirin-fararan! Baina ez zagok horrela ibiltzerik. Horrela ibilita ez zagok gauza onik. Eta gizonak egin behar dik pentsatu: *Nik ere izan ditiat aukerak hara eta hona ibiltzeko. Baina, ez, ez, ez. Ni ez.*

Testuingurua:

Emakume batek kontatzen du gazteak ziztu bizian ibiltzen direla errepidean.

Adibidea:

Gazte horik e beren motoatan **balebiltzeteken** mantsogo eo behar den modun. Baita ibilli littezken oiñez e. Beren burumtzat mesede likenea. Beño, ez titton ibiltzen. Nahigo diñea autoan edo motoan.

Gazte horiek ere beren motoetan **balebilzken** mantsogo edo behar den moduan. Baita ibil litezken oinez ere. Beren buruarentzat mesede liketen. Baina ez ditun ibiltzen. Nahiago ditun autoan edo motoan.

Testuingurua:

Gizon batek aipatzen du errepidean errespetua zeinen garrantzitsua den eta zein arrisku dauden.

Adibidea:

*Horik e **balebiltzetekek** mantsoxeo, ta batak pestea errespetatuz, baño ez tie errespetoik. Dena ni, tte bestek izorra daitzela, ta fuera. Ez jaune. Hoi ez tok hola. Denak ibiltzeko deretxoa zeuku. Baño bat ez baldin badabil tayun, de bestetatiken aparte baldin badabil, hari tokatuko zitziok okerren bat. Eta hari tokatzea ez tok deus. Besten batek patuko dik. Eta hola ibiltzeik etzeok.*

Horiek ere **balebilzkek** mantsoxeago, eta batak bestea errespetatuz, baina, ez ditek errespeturik. Dena ni, eta besteak izorra daitezela, eta fuera. Ez jauna. Hori ez duk horrela. Denok ibiltzeko eskubidea zeukagu. Baina bat ez baldin badabil taxuan, eta beste-etatik aparte baldin badabil, hari tokatuko zaiok okerren bat. Eta hari tokatzea ez duk deus. Besteren batek pagatuko dik. Eta horrela ibiltzerik ez zagok.

